



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

2014ko birgaitzeko
politikaren ebaluazio-
txostena
2015eko ekaina

administrazioa

AURKIBIDEA

1. SARRERA	6
2. TESTUINGURU EGOERA	8
2.1. Sarrera	8
2.2. EAeko etxebizitza-parkea.....	8
2.3. Etxebizitzak birgaitzeko beharra eta eskaria.....	9
2.3.1. Etxebizitzak birgaitzeko behar eta eskariaren kuantifikazioa.....	9
2.3.2. Birgaitzeko beharra duten familien ezaugarriak	10
2.3.3. Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren ezaugarriak.....	11
2.3.4. Behar den birgaitze mota	12
2.3.5. Etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila eta birgaitzeko beharraren maila subjektiboa	13
2.3.6. Birgaitzen laguntzeko programen berri izatea.....	14
2.4. EAeko parke eraikiaren berrikuntzan esku hartzeko beharren diagnostikoa	15
3. ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO OINARRIZKO ARAU ETA POLITIKAK	17
3.1. Birgaitzearen eta hiri-berroneratzearen alorreko oinarrizko araudia.....	17
3.2. Jarduketa-esparrua	18
3.2.1. Renove plana.....	18
3.2.2. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea.....	19
3.2.3. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean jasotako birgaitzeko programak eta laguntzak arautzen dituen araudia	21
4. BIRGAITZEKO POLITIKEN JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO METODOLOGIA	22
4.1. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren birgaitzeko politikak ebaluatzearen helburua.....	22
4.2. Ebaluazioaren metodologia	22
4.3. Ebaluazioaren galderak.....	23
5. BIRGAITZEKO POLITIKAK EBALUATZERA BIDERATUTAKO ADIERAZLEEN JARRAIPENA	24
5.1. Sarrera.....	24
5.2. Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 aldirako Renove Plana	24
5.2.1. Partikularrentzako eta jabeekideen erkidegoentzako laguntza-programa, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko	24
5.2.2. Udalentzako eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasun arloko laguntzen programa.....	32
5.2.3. Birgaitze Integratuko Eremuetan (BIE) edo Bizitegi Eremu Narriatuetan (EN) ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzen programa.....	34
5.2.4. Etxebizitza eta eraikinetako birgaitze eraginkorreko laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko	35
5.2.5. Hiri-berroneratzerako diru-laguntzen programa	36
5.3. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen 4. ardatza: Birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta integratzailea sustatzea, Europako gidaleroei jarraiki	36

5.3.1.	4.1. jarduketa-ildoaren (Irisgarritasun unibertsala sustatzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak	36
5.3.2.	4.2. jarduketa-ildoaren (Eraikinak kontserbatzen eta mantentzen laguntzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak	38
5.3.3.	4.3. jarduketa-ildoaren (Birgaitzeetan osoko kudeaketarako eredu berria bultzatzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak.....	41
5.3.4.	4.4. jarduketa-ildoaren (Enplegua sustatzeko modu berriak bultzatzea birgaitzearekin lotuta) helburuak eta horiek lortzeko neurriak	44
5.3.5.	4.5. jarduketa-ildoaren (Etxebizitzaren kalitatea sustatzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak	44
5.4.	Birgaitzeko laguntzen hartzaileen adierazleak.....	45
5.4.1.	Birgaitzeko bakarkako laguntzak hartzen dituzten familien ezaugarriak.....	45
5.4.2.	Jabekideen erkidegoentzako laguntzak	48
6.	ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK LAGUNDU DITUEN BIRGAITZEKO JARDUKETEN ERAGIN EKONOMIKOA	49
6.1.	Eragin ekonomikoa	49
7.	SAILAREN BIRGAITZEKO POLITIKEN EBALUAZIOA	52
7.1.	2013-2016 Plan Zuzentzailearen helburuen betetze-mailaren ebaluazioa	52
7.2.	2013ko birgaitzeko politikaren ebaluazio globala	56
8.	GOMENDIOAK	59

TAULEN AURKIBIDEA

Orrialdea

2.1. taula.	2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen diagnostikoko dimentsioak eta faktoreak	8
2.2. taula.	Familia-etxebizitzaren bilakaera (2001-2011).	8
2.3. taula.	Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-parkearen egoera (2001-2011).	9
2.4. taula.	Birgaitzeko beharra duten familien ezaugarriak (2011-2013)	11
2.5. taula.	Etxebizitzaren edukitze-erregimena behar motaren arabera (2013).	11
2.6. taula.	Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren ezaugarriak (2013).	12
2.7. taula.	Behar den birgaitze mota lurralde historikoaren arabera (2013).	13
2.8. taula.	Biztanleriaren banaketa kalteberatasun tipologien arabera.	15
3.1. taula.	Estrategia formulatzea: Ardatz Estrategikoak eta Jarduketa Ildoak	20
3.2. taula.	2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen birgaitze-alorreko helburu kuantitatiboak.....	20
3.3. taula.	2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean jasotako birgaitzeko programak eta laguntzak arautzen dituen araudia	21
4.1. taula.	Ebaluazio-metodologiaren eskema	23
5.1. taula.	Etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak, birgaitze motaren arabera.....	25
5.2. taula.	Birgaitzera zuzendutako diru-laguntzen bilakaera, laguntza motaren arabera.....	26
5.3. taula.	Diru-laguntzak eta babes daitekeen aurrekontua birgaitze komunitarioko jardueren eta bakarkako birgaitze-jardueren arabera (2014)	29
5.4. taula.	2014an onartutako diru-laguntzak, obra motaren eta laguntza motaren arabera.	31

5.5. taula.	Emandako laguntzen banaketa birgaitze bakartuaren edo birgaitze integratuaren arabera (2014).	31
5.6. taula.	Etxebizitzak birgaitzeko maileguak.	32
5.7. taula.	Udalei eta tokiko erakunde txikiei irisgarritasuna hobetzeko emandako diru-laguntzak (2002-2014).	33
5.8. taula.	Irisgarritasun-programaren 2014ko deialdiko aurrekontuaren urteko banaketa	33
5.9. taula.	Udalei eta tokiko erakunde txikiei irisgarritasuna hobetzeko emandako diru-laguntzak. 2014an onartutako jarduketak.	33
5.10. taula.	Birgaitze integratuko eremuetarako eta bizitegi-eremu narriatuetarako RENOVE programaren esparruan 2014an emandako diru-laguntzak	34
5.11. taula.	Birgaitze integratuko eremuetan eta bizitegi-eremu narriatuetan ondare urbanizatua birgaitzeko emandako diru-laguntzen xehetasuna	35
5.12. taula.	Etxebizitzak eta eraikinak eraginkortasunez birgaitzeko programaren deialdiaren ebazpena ...	35
5.13. taula.	Etxebizitzak eta eraikinak eraginkortasunez birgaitzeko Renove programaren 2014ko abendu deialdiaren aurrekontua	36
5.14. taula.	Hiri-berroneratzerako laguntzen programaren esparruan emandako diru-laguntzak	36
5.15. taula.	4.1. jarduketa-ildo ebaluatzerako bideratutako jarraipena egiteko fitxa teknikoa	38
5.16. taula.	4.2. jarduketa-ildo ebaluatzerako bideratutako jarraipena egiteko fitxa teknikoa.	41
5.17. taula.	4.3. jarduketa-ildo ebaluatzerako bideratutako jarraipena egiteko fitxa teknikoa	43
5.18. taula.	4.4. jarduketa-ildo ebaluatzerako bideratutako jarraipena egiteko fitxa teknikoa	44
5.19. taula.	4.5. jarduketa-ildo ebaluatzerako bideratutako jarraipena egiteko fitxa teknikoa	44
6.1. taula.	2010-2014 aldian birgaitzeko emandako laguntzen eragin ekonomikoa.	50
6.2. taula.	Eragin ekonomikoa BPGd-aren osagaien arabera (2014).	51
6.3. taula.	Birgaitzeko laguntzen eragin ekonomikoa (2014).	51
7.1. taula.	2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen birgaitzeko helburu kuantitatiboaren betetze-maila.....	52
7.2. taula.	Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren birgaitzeko jardueraren adierazleen laburpena (2013).	53
7.3. taula.	2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen 4. ardatza	54

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

2.1. grafikoa.	Etxebizitzetara zuzendutako eraikinen banaketa eraiki zireneko urtearen arabera	9
2.2. grafikoa.	EAEen etxebizitza birgaitzeko beharra eta eskaria (2011-2013).	10
2.3. grafikoa.	Birgaitzeko beharra duten familien lurralde-banaketa (2013)	10
2.4. grafikoa.	Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren eraikinetako eranskinak eta irisgarritasuna (2013)	12
2.5. grafikoa.	Beharra duten familiek behar duten birgaitze mota (2011-2013).....	13
2.6. grafikoa.	Etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila eta etxebizitza birgaitzeko beharraren maila (2011-2013)	14
2.7. grafikoa.	Birgaitzeko beharrean daramaten denbora, eta aldatzea edo birgaitzea nahiago izatea	14
2.8. grafikoa.	Birgaitzeko laguntzen berri izatea	15
2.9. grafikoa.	Esku hartzeko behar oso handia duten udalerrien eta auzoen lurralde-banaketa	16
5.1. grafikoa.	Birgaitutako etxebizitzaren kopuruaren eta birgaitzeko diru-laguntzen guztizko zenbatekoaren bilakaera (2006-2014).	24
5.2. grafikoa.	Birgaitzeko diru-laguntzen batez besteko zenbatekoa, motaren arabera	25


5.3. grafikoa.	Laguntzen banaketa esku hartzeko eremuaren arabera	25
5.4. grafikoa.	Diru-laguntzen bilakaera laguntza motaren arabera.	27
5.5. grafikoa.	2014an emandako diru-laguntzen banaketa lurralde historikoaren eta birgaitze motaren arabera.	28
5.6. grafikoa.	2014an emandako diru-laguntzen banaketa, lurralde historikoaren eta laguntza motaren arabera.	29
5.7. grafikoa.	Diruz lagundutako jarduketetan babes daitekeen aurrekontuaren lurralde-banaketa (2014) ...	30
5.8. grafikoa.	Laguntzen banaketa obra motaren arabera	31
5.9. grafikoa.	Onartutako maileguen guztizko zenbatekoaren bilakaera (2006-2014).	32
5.10. grafikoa.	Erakunde onuradunen eta emandako diru-laguntzaren lurralde-banaketa	34
5.11. grafikoa.	Diruz lagundutako proiektuen eta diru-laguntzak eraginpean hartu dituen etxebizitzaren lurralde-banaketa	35
5.12. grafikoa.	Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, diru-sarreraren mailaren arabera.	45
5.13. grafikoa.	Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, familiako kide kopuruaren arabera.	46
5.14. grafikoa.	Birgaitzeko laguntzen hartzaile diren kide bakarreko familien proportzioaren bilakaera birgaitze motaren arabera.	46
5.15. grafikoa.	Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, sexuaren eta birgaitze motaren arabera	47
5.16. grafikoa.	Kide bakarreko familiak birgaitze motaren eta sexuaren arabera.....	47
5.17. grafikoa.	Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, adinaren arabera	48
5.18. grafikoa.	Birgaitzeko laguntzak jaso dituzten atzerritarrak.....	48
6.1. grafikoa.	BPGd-aren banaketa, birgaitzeko laguntzek eragindako sektore garrantzitsuenen arabera (2014).	50
6.2. grafikoa.	Zerga-bilketaren banaketa zerga motaren arabera (2014).....	51

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren etxebizitza-politikak definitutako Ebaluazio Integraleko Ereduaren arabera, urtean behin egin behar da 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean kokatutako jarduketa guztien ebaluazioa.

Sailaren ebaluazio-prozesuak hainbat ebaluazio-txosten argitaratzea dakar. Txosten horiek, Plana gauzatu aurretik egiten den *ex ante* ebaluazioa izan ezik, Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea gauzatzen den urte bakoitzerako bitarteko ebaluazioak dira. Planaren indarraldiaren amaieran, 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen *ex post* ebaluazioa egingo da.

Dokumentu hau Sailaren Birgaitze Politikaren Ebaluazioa da, 2014ko ekitaldiari dagokiona. Birgaitzea bultzatzea da 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen bi lehentasunetako bat, alokairu-erregimena sustatzearekin batera. Planak 4. ardatz estrategikoa eskaintzen dio espezifikoki birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta integratzailea sustatzeari, Europako gidalerroei jarraiki.



Bestalde, Etxebizitza Birgaitzeko Renove Plana, Enplegua Suspertzeko Planaren sei ildo estrategikoetako bat osatzen duena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren birgaitzen laguntzeko politikak definitzen dituzten 5 programatan egituratzen da.

Ebaluazio-lan honetan, beraz, Renove Planaren programek aurreikusitako helburuak eta Plan Zuzentzaileak birgaitze-alorrean aintzat hartu eta 4. ardatz estrategikoan jaso dituenak zein neurritan erdietsi diren aztertzen da, 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzaileak ezarritako birgaitzeko helburu orokorrak alde batera utzi gabe.

Txostena zazpi kapitulutan egituratzen da, sarrera hau ere barne dela. Bigarren kapituluan hurbilketa labur bat egiten da EAEko testuingurura, etxebizitza-parkearen dimentsiora eta bilakaerara, haren antzinasunera eta kontserbazio-egoerara eta birgaitzeko premietara.

Hirugarren kapituluak laburbilduta aurkezten da birgaitzearen alorreko oinarritzko esparru arauemailea eta sailak 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen esparruan garatzen duen birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko politika.

Laugarren kapituluak birgaitzeko politiken jarraipena egiteko eta politika horiek ebaluatzeko metodologia deskribatzen da, baita egindako prozesuak erantzun behar dien ebaluazio-galderak ere.

Bosgarren kapituluak zehatz-mehatz aztertzen du sailak 2014. urtean birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko jarduketak bultzatzeko burutu duen jarduketa bakoitza. Kapituluak lau atal ditu: sarrera bat, Renove Planaren laguntza-programak analizatzen zuzendutako atal bat, Plan Zuzentzailearen 4. ardatzean zenbateraino egin den aurrera analizatzen zuzendutako beste bat eta laguntzen onuradunei buruzko adierazleak analizatzen zuzendutako laugarren bat.

Amaitzeko, seigarren eta zazpigarren kapituluetan, alde batetik 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzaileak ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzen da, efikazia, eraginkortasuna eta zuzentasuna kontuan hartuta; eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko politikak eraginkorrago egiteko gomendioak ematen dira.

2. TESTUINGURU EGOERA

2.1. Sarrera

2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren alorrean hauteman diren arazo eta beharrei erantzuteko asmoz sortu den plangintza estrategikoko tresna da, eta alokairua sustatzea eta birgaitzea bultzatzea da bere eginkizun nagusia.

Birgaitzeari dagokionez, sailak egindako diagnostikoak 2.1. taulan zehazten diren gabeziak identifikatu zituen. Izan ere, gabezia horietan erantzutea da abian jarri den strategiaren asmoa.

EAEko etxebizitza-parkearen egoerari eta hautemandako birgaitze-beharrei buruzko testuinguru-datu nagusiak eskaintzen dira kapitulu honetan.

2.1. taula. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen diagnostikoko dimentsioak eta faktoreak

A. BIRGAITZEA
1. Etxebizitzetara iristeko zailtasunak: igogailurik eta arrapalarik eza, laguntza-sistemen konplexutasuna...; eta kontserbazio-egoera txarrean dauden eraikinak (parke zaharra): informaziorik eza, kontserbatu behar diren inguruko kulturarik eza, laguntza-sistemen konplexutasuna...
2. Energia-eraginkortasuneko eskakizunak, energia-ziurtapenak eta eraikinen ikuskapen teknikoak (EIT) betetzea: helburuak Europako legeriarekin bat etorraraztea, eraikinen ikuskapen teknikoak egin beharra...
3. Hirietako eremu degradatuak berronertzeko eta berritzeko premia.
4. Eraikuntzaren sektorean jarduera eta enplegua bultzatzea.

Iturria: 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen diagnostikoa. Bertan landutakoa.

2.2. EAEko etxebizitza-parkea

EAEko etxebizitza-parkearen egoerari buruz erabilgarri dauden azken datuak 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak horri buruz ematen duen informazioari dagozkio. Datu horiek kontuan hartuta, esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko familia-etxebizitzaren parkea (1.017.602 etxebizitza) urte asko dituzten etxebizitzek osatzen dutela. Horren ondorioz, eraikinetako askok ez dituzte betetzen irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintza egokiak, eta are handiagoa da eskatutako energia-eraginkortasunaren irizpideak betetzen ez dituzten eraikinen bolumena, ez baitute ez ingurutzailerik termiko egokirik ez berokuntza-sistema eraginkorrik.

2.2. taula. Familia-etxebizitzaren bilakaera (2001-2011).


	2001eko zentsua	2011ko zentsua	Aldakuntza (%)
Araba	124.391	155.767	25,2
Bizkaia	469.769	533.882	13,6
Gipuzkoa	295.400	327.952	11,0
EAE	889.560	1.017.602	14,4

Iturria: INE. 2001eko eta 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

Parkearen antzintasunari dagokionez, esan behar da % 42 1961. urtea baino lehen eraiki dela, nahiz eta alde garrantzitsuak dauden lurralde batetik bestera. Hala, proportzio hori % 32raino murrizten da Arabako eraikinetan eta Gipuzkoako eta Bizkaiko kasuan % 45ekoa da.

Kontuan izan behar da BPIE (Buildings Performance Institute Europe) erakundearen “Europe’s Buildings under the microscope” txostenaren arabera, EAEko etxebizitza-parkea Hego Europa osoko zaharrena dela.

2.1. grafikoa. Etxebizitzetara zuzendutako eraikinen banaketa eraiki zireneko urtearen arabera



Iturria: INE. 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua.

2011ko zentsuaren datuekin jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza-parkearen gabezia garrantzitsuenetako bat irisgarritasuna dela egiazta daiteke. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etxebizitza-eraikinen % 66k ez dituzte betetzen irisgarritasun-baldintzak (108.000 eraikin inguru), eta % 76k ez dute igogailurik.

Bestalde, arestian adierazi den moduan, parkearen bigarren gabezia garrantzitsuen energia-eraginkortasuna da. Izan ere, parke gehiena eraiki zenean ez zegoen eraikuntzan energia-eraginkortasunaren eskakizunak aintzat hartuko zituen araudirik.

Amaitzeko, 2011ko zentsuko datuen arabera, azken hamarkadan murriztu egin da gabeziaren bat duen eraikinen proportzioa: 2001ean % 13koa zen proportzioa eta 2011n % 8koa.

2.3. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-parkearen egoera (2001-2011).

	2001eko eraikinak		2011ko eraikinak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Aurri-egoera	2.171	1,4	689	0,4
Txarra	3.980	2,7	2.344	1,4
Eskasa	13.663	9,1	10.371	6,6
Ona	130.573	86,8	149.760	91,6
EAE	150.387	100,0	163.524	100,0

Iturria: INE. 2001eko eta 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

2.3. Etxebizitzak birgaitzeko beharra eta eskaria

2.3.1. Etxebizitzak birgaitzeko behar eta eskariaren kuantifikazioa


Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bi urtez behin lantzen den Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Estatistikaren bitartez lortzen du EAEko parkea birgaitzeko beharrei buruzko informazioa.

2013an egindako azken inkestaren emaitzak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan guztira 90.000 familiak baino gehixeagok zuten etxebizitza birgaitzeko premia, hots, EAEko etxebizitza nagusien % 10,3k. Emaitza horrek adierazten du azken bi urteetan asko handitu dela antzemandako beharra, 2011n beharra zuten familiak 75.000 baino gehixeago baitziren.

Behar handiago horrek, alabaina, ez da eskaria handitzerik ekarri, zeren beharra duten familien % 19k besterik ez baitute uste behar horri urtebeteko epean aurre egiteko ahalmena dutenik (17.047 familia). Hortaz, beherakada handia izan da 2011. urteko emaitzaren aldean, orduan beharra zuten familien % 32k aurreikusten baitzuten behar ziren obrei urtebeteko epean ekingo zietela.

Horrenbestez, Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Estatistikak nabarmentzen du beharrak gora egin duela, baina, horrekin batera, jendeak ahalmen txikiagoa duela behar horri aurre egiteko.

2.2. grafikoa. EAEn etxebizitza birgaitzeko beharra eta eskaria (2011-2013).




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Azterketa geografikoak erakusten duenez, beharren erdiak gutxi gorabehera Bizkaiko familiei dagozkie (44.500 etxebizitza), % 31 Gipuzkoako etxebizitzak dira (27.500 etxebizitza) eta gainerako % 20 Araban kokatuta daude (18.100 etxebizitza).

Beharraren indizeei dagokienez, Bizkaia eta Gipuzkoak antzeko mailak dituzte (familia guztien % 9,8 inguru) eta Araban birgaitzeko beharraren indizea lurraldeko familien % 13,5eraino iristen da.

2.3. grafikoa. Birgaitzeko beharra duten familien lurralde-banaketa (2013)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.3.2. Birgaitzeko beharra duten familien ezaugarriak

Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Estatistikak aukera ematen du etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak ezaugarritzeko. Azken bi inkestak konparatuz gero, egiazta daiteke gora egin duela langabezia dauden pertsonen proportzioak (% 5etik % 16ra) eta,aldi berean, igo egin dela, neurri txikiagoan bada ere, lanean ari diren pertsonen ehunekoa (% 42tik % 45era). Alabaina, erretiratuen proportzio erlatiboa nabarmen txikiagoa dela ikus daiteke. Izan ere, beharren % 13 hartzen dute eta duela bi urte % 22raino iristen ziren.

Familien batez besteko tamaina 2,6 pertsonakoa da (2011. urtean 2,5), eta batez besteko diru-sarrerak % 8 jaitsi dira (hilean 1.708 € garbi eta 2011n hilean 1.850 €).

2.4. taula. Birgaitzeko beharra duten familien ezaugarriak (2011-2013)

Lan-egoera (inkestari erantzun dion pertsona)	2011	2013
	Banaketa (%)	Banaketa (%)
Landuna	42,2	44,6
Langabea	5,1	15,9
Etxeko lanak	18,5	11,7
Erretiratua	21,9	12,7
Beste hainbat	12,4	15,0
Guztira	100,0	100,0
Batez besteko adina (urteak)	58,2	54,1
Kide kopurua familiako (batez besteko tamaina)	2,5	2,6
Hileko diru-sarrera garbiak	Banaketa (%)	Banaketa (%)
840 € arte	12,1	14,3
841 - 1.140 €	8,4	14,8
1.141 - 1.410 €	11,8	12,0
1.411 - 1.650 €	8,8	7,3
1.651 - 2.160 €	9,8	12,7
2.160 € baino gehiago	26,9	24,5
Ed/Ee	22,3	14,4
Guztira	100,0	100,0
Batez besteko diru-sarrerak (eurotan)	1.850,0	1.708,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Azkenik, esan beharra dago birgaitzeko behar gehienak jabetza-erregimenean bizi diren familiei dagozkiela (guztien % 93). Datu hori guztiz logikoa da alokairu-erregimeneko etxebizitzaren maizterrek erreformak egiteko zer-nolako zailtasunak eta mugak dituzten kontuan hartuta. Etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazten dutenen etxebizitzaren edukitze-erregimena kontuan hartuta, alokairuan bizi diren familiak guztizkoaren % 35 dira (% 5 birgaitzeko beharretan).

2.5. taula. Etxebizitzaren edukitze-erregimena behar motaren arabera (2013).

Edukitze-erregimena	Birgaitzeko beharra	Aldatzeko beharra
Jabetzako etxebizitza	93,0	60,7
Alokairuko etxebizitza	4,7	35,1
Beste egoera bat	2,3	4,2
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

2.3.3. Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren ezaugarriak

Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren batez besteko tamaina 80 m²-koa da. Batez besteko tamaina hori handixeagoa da etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazten dutenena baino (72 m²). Birgaitzeko beharra duen parkearen antzintasunari dagokionez, esan beharra dago etxebizitzaren % 57 orain dela 40 urte baino gehiago eraiki zirela, eta batez besteko antzintasuna 43 urtekoa dela.


Irisgarritasunari dagokionez, bestalde, zenbait gabezia dagoela egiazta daiteke, etxebizitzaren % 43k ez baitute igogailurik, eta % 48,5 egokitu gabeko eraikin batean kokatzen baitira.

2.6. taula. Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren ezaugarriak (2013).

Etxebizitzaren azalera erabilgarria	Banaketa (%)
60 m ² arte	14,7
61 - 75 m ²	30,1
76 - 90 m ²	31,3
90 m ² baino gehiago	22,8
Ed/Ee	1,1
Guztira	100,0
Batez besteko azalera (m²)	80,1
Etxebizitzaren antzintasuna	Banaketa (%)
60 urte baino gehiago	17,6
41 - 60 urte	39,0
26 - 40 urte	26,1
16 - 25 urte	8,6
15 urte eta gutxiago	4,4
Ed/Ee	4,3
Guztira	100,0
Batez besteko antzintasuna (urteak)	43,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzza.

2.4. grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitzaren eraikinetako eranskinak eta irisgarritasuna (2013)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzza.

2.3.4. Behar den birgaitze mota

Behar den erreforma tipologia kontuan izanik, analisiak nabarmentzen du etxebizitzaren barnealdeko elementuekin zerikusia duten beharrak direla nagusi, beharren erdiek gisa horretako elementuak aipatzen dituzte-eta (batez ere bainugela edo sukaldea). Gainera, familien % 32k adierazten dute beharrak dituztela elementu pribatiboetan zein eraikinaren eremu komunetan. Azkenik, familien % 18rentzat eraikinaren zona komunetako elementuetan besterik ez da zentratzen beharra.


2.7. taula. Behar den birgaitze mota lurralde historikoaren arabera (2013).

Birgaitze mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Elementu pribatiboak	49,8	44,2	58,7	49,8
Elementu komunak	12,5	23,0	14,9	18,4
Elementu pribatiboak eta komunak	37,7	32,8	26,5	31,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2011n egindako inkestaren aldean, nabarmentzekoa da sukaldea, bainugela eta atekak edo leihoak bezalako elementuak erreformatzeko beharrak izan duen igoera handia. Fatxada erreformatzeko, igogailua aldatzeko edo teilatuan erreformak egiteko beharrak, aitzitik, behera egin du nabarmen samar. Ildo horretan, kontuan izan behar da birgaitzen laguntzeko politikak nagusiki etxebizitza eta eraikinen birgaitze integrala sustatzera bideratzen direla eta bereziki azpimarratzen dutela eraikinen irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna.

2.5. grafikoa. Beharra duten familiek behar duten birgaitze mota (2011-2013)




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.3.5. Etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila eta birgaitzeko beharraren maila subjektiboa

Beharraren maila subjektiboaren analisiak adierazten duenez, behar txikiagoa sumatzen da (60 puntu orain eta 73 puntu 2011n) eta, aldi berean, etxebizitzarekiko gogobetetasun-indizea handiagoa da (71 puntu orain eta 62 puntu 2011n).

Horregatik, zati batean behintzat, beharren bolumenak gora egin duen arren, jaitsi egin da epe laburrerako benetako eskaria, hots, antzeman diren beharrak ez dira hain presakoak eta neurri handiagoan daude etxebizitzaren barnealdea egokitzearekin erlazionatuta. Fenomeno hori azal dezakeen beste arrazoietako bat izan daiteke krisialdi ekonomiko luzearen ondoren oraindik ere familien finantza- eta kontsumo-ahalmena geldituta edo abiarazi gabe egotea.


2.6. grafikoa. Etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila eta etxebizitza birgaitzeko beharraren maila (2011-2013)




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Birgaitzeko beharrean daramaten denborari dagokionez, beharra duten pertsonen erdientzat baino gehixeagorentzat (guztizkoaren % 51) egoerak luzaroan jarraitzen duela egiazta daiteke, egoera horretan lau urte baino gehiago daramatela adierazi dute-eta. Bestalde, beharra duten pertsonen bostenek adierazten dutenez, nahiago dute etxebizitza aldatzea, baina arrazoi ekonomikoen ondorioz egin ezin dutenez, egungo etxebizitza birgaitzearen aldeko hautua egiten dute.

2.7. grafikoa. Birgaitzeko beharrean daramaten denbora, eta aldatzea edo birgaitzea nahiago izatea



Aldatzea nahiago izatea, eta erantzuna baiezkoa bada, ez aldatzeko arrazoiak




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.3.6. Birgaitzen laguntzeko programen berri izatea

Azkenik, inkestak badu datu deigarri bat: etxebizitza birgaitzeko beharra duten pertsonen % 18,5ek besterik ez dute esaten Eusko Jaurlaritzak birgaitzeko ematen dituen laguntzak sakonki ezagutzen dituztenik. Bestalde, % 46k entzun dute zerbait baina ez dakite laguntzak zertan dautzan. Azkenik, herenek baino gehiagok (% 35) ez dakite laguntzak daudenik ere.

2.8. grafikoa. Birgaitzeko laguntzen berri izatea



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.4. EAEko parke eraikiaren berrikuntzan esku hartzeko beharren diagnostikoa

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2012an egin zuen EAEko parke eraikia birgaitzen esku hartzeko beharrei buruzko diagnostikoaren arabera, EAEko biztanleen % 16 kalteberatasun-maila oso handikotzat jotzen den zona batean bizi dira (352.272 biztanle), eta % 15 kalteberatasun-maila handiko zona batean (329.194 biztanle). Azterketa horrek etxebizitza-parkearen egoera analizatu zuen bost kalteberatasun-parametro kontuan hartuta: gizarte-kalteberatasuna, bizigarritasuna, irisgarritasuna, egonkortasuna eta energia-eraginkortasuna.

2.8. taula. Biztanleriaren banaketa kalteberatasun tipologiaren arabera.

Kopurua	Kalteberatasun tipologia	ZENTSU SEKZIOAK		BIZTANLERIA	
		Kopurua	%	BIZTANLE KOPURUA	%
1	OSO HANDIA	305	18,0	352.272	16,1
2	HANDIA	264	15,5	329.194	15,1
3	ERTAINA HANDIA	85	5,0	113.259	5,2
4	ERTAINA	86	5,1	97.492	4,5
5	ERTAINA TXIKIA	228	13,4	262.195	12,0
6	TXIKIA	447	26,3	657.828	30,1
7	OSO TXIKIA	44	2,6	49.217	2,3
8	ZEHARO TXIKIA	68	4,0	109.665	5,0
AZTERKETA GUZTIRA		1.527	89,9	1.971.122	90,2
AZTERKETATIK KANPO		171	10,1	214.747	9,8
EAE GUZTIRA		1.698	100,0	2.185.869	100,0


Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Diagnostiko horrek alde handiak erakusten ditu lurralde batetik bestera. Izan ere, Araban zentsu-sekzioen % 10,7 bakarrik sartzen da kalteberatasun-maila handiko edo oso handiko kategorietan eta proportzio hori % 33,7koa da Gipuzkoan eta % 45koa Bizkaian. Kontuan izan behar da aipatutako balioek zentsu-sekzioen batez bestekoak adierazten dituztela, baina azterketa estatistikoari erreparatzen bazaio, kalteberatasun handiagoa islatzen dute eta, ondorioz, esku hartzeko beharra handiagoa da Bizkaiko eta Gipuzkoako auzoetan.

Auzoei dagokienez, azterketak esku hartzeko behar oso handia duten 60 auzo identifikatu ditu guztira. Horietako 20 Birgaitze Integratuko Eremu edo Eremu Degradatu deklaratu dira eta 5

antolamenduz kanpo daude. Hortaz, **esku hartzeko behar handia duten eta deklaratu ez diren 35 auzo** daude. 35 auzo horiek 14 udalerritan daude eta horietako asko Bizkaian. Ikus **2.9. grafikoa**.

2.9. grafikoa. Esku hartzeko behar oso handia duten udalerrien eta auzoen lurralde-banaketa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

3. ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO OINARRIZKO ARAU ETA POLITIKAK

3.1. Birgaitzearen eta hiri-berroneratzearen alorreko oinarrizko araudia

Jabetza Horizontalaren Legeak (8/1999 Legea) **arautzen ditu jabeakideen erkidegoak eraikinaren ondasun komunetan gainean dituen eskubide eta betebeharrak**. Lege horren arabera, jabeak **kontserbazio-egoera onean mantendu** behar ditu bai bere etxebizitza eta bai instalazio eta elementu komunak, beharrezko konponketak onartu eta erkidegoaren gastu orokorretan dagokion zatia ordaindu beharko du.

2007ko urriaren 24ko Aginduak, bestalde, jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloko **bitartekotzako eta adiskidetzeko** funtzioak arautzen ditu.

Hiri-ingurunearen irisgarritasuna sustatzeari dagokionez, 20/1997 Legeak gunen publikoen eta eraikinen **irisgarritasuna bermatzea** du xede. 68/2000 Dekretuaren bidez, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dira.

2006. urtean indarrean jarri zen 314/2006 Errege Dekretua, **Eraikingintzaren Kode Teknikoa** onartzen duena, **eraikinek eta instalazioek** Eraikuntza Antolatze Legean (EAL, 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa) definitutako oinarrizko segurtasun- eta bizigarritasun-eskakizunen arabera **bete behar dituzten eskakizunak** ezartzen dituen esparru arauemaile berria. Kode berri horrek eraikinen mantentze-lanak ere arautzen ditu, hau da, egun dauden eraikinak handitzeko, erreformatzeko edo birgaitzeko obrak Eraikingintzaren Kode Teknikoa betez egin beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legea (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, 2/2014 Legeak, urriaren 2koak, aldatua) 2006ko irailaren 21ean jarri zen indarrean. Legearen arabera, jabeak dira eraikina mantentzeko eta kontserbatzeko ardura dutenak. Gainera, **eraikinen kontserbazio-egoerari buruzko aldizkako ikuskapenak** (EIT) **egiteko betebeharra** ezartzen du, horrela, aurre-deklarazioa hiri-lurzoruaren espekulazio-mekanismo izatea saihestuko baita.

Zehazki, legeak dioenez, berrogeita hamar urtetik gorako antzinatasuna duten etxebizitzaren jabe guztiek Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egin beharko dute. Ikuskapen hori teknikari kualifikatuak egin beharko du, eta gero txosten teknikoak igorriko du, ikuskapenaren emaitzarekin. Legearen arabera, estalkiari, zimendu eta egiturari, fatxadari eta uren hornidura- eta ebakuazio-sareei buruzko alderdiak aztertu beharko ditu EITak.

Aldi berean, ez da ahaztu behar mota guztietako eraikinak konpontzeko, kontserbatzeko, birgaitzeko eta hobetzeko obrak gauzatzeko aginduak eman ditzaketela udalek, eraikinaren egitura segurtatzeko, hirugarrenentzako arriskuak saihesteko edo energia elektrikoaren eta ur-horniduraren hirigintza-zerbitzu minimoak eta ur-sarea bermatzeko, baita irisgarritasunari buruzko araudia betetzeko ere.

2012ko azaroan onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoan **eraikinen ikuskapen teknikoak** arautzen duen Dekretua. Hain zuzen, **241/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak**, arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntza edo eraikin katalogatuen edo babestuen ikuskapen teknikoak bete beharreko irizpideak eta baldintzak, baita bizitegi-erabilerako eraikinek bete beharrekoak ere.

Halaber, eraikinen ikuskapen teknikoaren erregistroa sortzen eta arautzen du aipatutako dekretuak.

Araudi berriarekin, sistema objektibo eta bateratu bat ezartzen da, eta horri esker, eraikinetan ikusitako akatsak eta gabeziak ezagutu daitezke, baita horien arrazoiak ere, eta eraikuntzari dagokion erabilaren arabera erabilera eraginkorra emateko gomendioak ezagutu daitezke.

Bestalde, 2013ko ekainean Estatuko **8/2013 Legea, ekainaren 26koa, Hiri Birgaitzeari, Berroneratzeari eta Berritzeari buruzkoa** onartu zen. Lege horren bitartez sortzen da Eraikinen Ebaluazioaren Txostena (EET), EIT baino osatuagoa dena, izan ere, **eraikinen irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna ere aztertzen baititu.**

Hauek dira legeak ezarritako helburu nagusiak:

- Eraikuntza-birgaitzea eta hiri-berroneratzea eta -berritzea sustatzea.
- Eraikuntzaren sektorearen birmoldaketa eta suspertzea ahalbidetuko duen esparru arauemaile bat eskaintzea.
- Kalitatea, iraunkortasuna eta lehiakortasuna sustatzea, bai eraikuntzan bai lurzoruan, eta Espainiako esparru arauemailea Europakora hurbiltzea, batez ere eraginkortasunari, energiaren aurrezpenari eta pobretasun energetikoaren aurkako borrokari dagokienez.

Bestalde, ezin da ahaztu apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretua, eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena. Errege Dekretu horren onarpenarekin batera, eraikinak, edo eraikinen unitateak, eraikitzen, saltzen edo alokatzen diren guztietan, erosleari edo errentari berri potentzialari energia-eraginkortasunaren ziurtagiria erakusteko betebeharra ezarri da.

2014ko maiatzean onartu zen **80/2014 Dekretua, maiatzaren 20koa**, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) arautzen duen 241/2012 Dekretua aldatzen duena. Estatuko legea onartu izanaren ondorioz, komenigarritzat jo zen autonomia-erkidegoko araua egokitzea eta bertan jasotzea bai irisgarritasun unibertsalaren oinarrizko baldintzak ebaluatu beharra, bai desgaitasuna duten pertsonak eraikinetara sartzekoan eta horiek eraikinak erabiltzerakoan ez diskriminatzearekin lotutako baldintzak ebaluatu beharra. Halaber, eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtagiriari buruzko informazioa jaso beharra gehitzen du araudi berriak.

Bestalde, araudi berriak beste egutegi bat ezartzen du, estatuko araudia malguagoa da-eta. Horiek horrela, luzatu egiten da epea 2017ko ekainaren 27a baino lehen 50 urte beteko dituzten eraikinentzat.

Azkenik, dekretu berriak ezartzen duenez, ezinbestekoa izango da eraikinetan EITa egitea, baldin eta haien titularrek etxebizitzak eta eraikinak birgaitzera zuzendutako laguntza publikoak eskuratu nahi badituzte, eraikinen antzintasuna dena dela ere.

3.2. Jarduketa-esparrua

3.2.1. Renove plana

2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzaileak eta Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 aldirako Renove Planak osatzen dute etxebizitzak birgaitzeko abian jarri diren jarduketan esparrua. Renove

Plana 2013-2016 aldirako Enplegua Suspertzeko Programan ezarritako sei ildo estrategikoetako bat da.

Etxebizitza eta eraikinetako energia-eraginkortasuna areagotzea, irisgarritasun-baldintzak hobetzea, gizarte-kohesioa indartzea eta enplegua sortzeko pizgarriak ematea dira Renove Planaren helburu nagusiak.

Helburu horiek lortzeko, 5 programa operatibo ditu Renove Planak:

- a) *Partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntza-programa, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko*
- b) *Udalentzako eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasun arloko laguntzen programa*
- c) *Birgaitze Integratuko Eremuetan (BIE) edo Bizitegi Eremu Narriatuetan ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzen programa.*
- d) *Etxebizitza eta eraikinetako birgaitze eraginkorreko laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.*
- e) *Hiri-berroneratzerako diru-laguntzen programa.*

3.2.2. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea

2013ko abenduan, bestalde, 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzaile berria onartu zuten, etxebizitzaren alorreko helburu berriak lau urterako definitzen dituen.

Plan berri horrek 460 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura dauka indarrean egongo den lau urteetarako, eta bere egiten ditu aurreko planaren erronka nagusiak: alokairu-erregimena bultzatzea eta hiri-birgaitzea sustatzea.

2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen estrategia orotara 72 ekintza biltzen dituzten 6 ardatz estrategiko eta 22 jarduketa-ildotan egituratzen da. 4. ardatza oso-osorik zuzenduta dago birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta integratzailea sustatzera, Europako gidalerroei jarraiki.

3.1. taulan ikus daiteke Plan Zuzentzailearen estrategia. Horren arabera, 4. ardatz estrategikoa oso-osorik zuzentzen da birgaitze integraleko eredu berri bat bultzatzera.

Helburu orokor hori lortzeko, bost jarduketa-ildo ezartzen dira:

- Irisgarritasun unibertsala sustatzea
- Eraikinak kontserbatzen eta mantentzen laguntzea
- Birgaitzeetan osoko kudeaketarako eredu berria bultzatzea
- Enplegua sustatzeko modu berriak bultzatzea birgaitzearekin lotuta
- Etxebizitzaren kalitatea sustatzea

3.1. taula. Estrategia formulatzea: Ardatz Estrategikoak eta Jarduketa Illoak

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	JARDUKETA ILDOAK
1. ARDATZA. ALOKAIRU ERREGIMENEO ETXEBIZITZAK ESKURATZEKO AUKERA IRMOKI SUSTATZEA	<p>1.1. Alokairuko etxebizitza berriak sustatzea eta horiek eskuratzen laguntzea.</p> <p>1.2. Partikularren alokairu-merkatuarentzako arau- eta zerga-esparru egonkorra eta malgua eskaintzea.</p> <p>1.3. Baliabideak bideratzea etxebizitza behar duten pertsoneri gizarte- alokairua lortzen laguntzeko.</p>
2. ARDATZA. LEHENTASUNEZKO TALDEEI ETXEBIZITZA LORTZEN LAGUNTZEA.	<p>2.1. Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa berriz definitzea.</p> <p>2.2. Etxebizitzen esleipenean, lehentasunezko taldeei mesede egiten dien sistema bat ezartzea.</p> <p>2.3. Lan-programak garatzea esleipenak kontrolatzeko eta esleitutako etxebizitzak ikuskatzeko.</p> <p>2.4. Neurri berritzaileak sustatzea, biztanleen beharrei erantzuteko.</p> <p>2.5. Gazteei etxebizitza lortzen laguntzeko ekintzak sustatzea.</p>
3. ARDATZA. BALIABIDEAK BIDERATZEA ERAIKINAK BEHAR BERRIETARA EGOKITZEKO ETA SUSTAPENETARAKO BEHARREZKOAK DIREN LURZORUAK KUDEATZEKO	<p>3.1. Etxebizitza tipologiak egungo beharretara egokitzea.</p> <p>3.2. Babestutako etxebizitzen prozesu administratiboak gehiago malgutzea.</p> <p>3.3. Eskuragarri dauden lurzorua aprobetxatzea etorkizunean lehentasunezko jarduketak sustatzeko.</p> <p>3.4. Lurzorua prestaketa zein etxebizitzak eta horien tipologiak arautzen dituen lege-esparrua berrikustea.</p>
4. ARDATZA. BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATZEA, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI	<p>4.1. Irisgarritasun unibertsala sustatzea</p> <p>4.2. Eraikinak kontserbatzen eta mantentzen laguntzea.</p> <p>4.3. Birgaitzeetan osoko kudeaketarako eredu berria bultzatzea.</p> <p>4.4. Enplegua sustatzeko modu berriak bultzatzea birgaitzearekin lotuta.</p> <p>4.5. Etxebizitzaren kalitatea sustatzea.</p>
5. ARDATZA. JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZAK MURRIZTEA	<p>5.1. Jenderik gabeko etxebizitzak babes- alokairurako baliatzea.</p> <p>5.2. Jenderik gabeko etxebizitzak detektatzeko eta identifikatzeko sistemak hobetzea.</p>
6. ARDATZA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA	<p>6.1. Sektore-politiken arloko koordinazioa areagotzea.</p> <p>6.2. Tresnak eta baliabideak optimizatzea etxebizitza-politikaren gaineko gobernantza berria sortzeko.</p> <p>6.3. Herritarrek parte har dezaten sustatzea.</p>

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.2. taula. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen birgaitze-alorreko helburu kuantitatiboak

Jarduketa kopurua	Etxebizitza kopurua				
	2013	2014	2015	2016	2013-2016 guztira
Birgaitzeko jarduketak					
Birgaitzeko laguntzak	15.580	17.000	19.300	21.600	73.480
• Birgaitze integratua	400	800	1.000	1.200	3.400
• Irisgarritasunerako birgaitzea	180	200	300	400	1.080
• Birgaitze bakartua	15.000	16.000	18.000	20.000	69.000

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.2.3. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean jasotako birgaitzeko programak eta laguntzak arautzen dituen araudia

3.3. taula. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean jasotako birgaitzeko programak eta laguntzak arautzen dituen araudia

Birgaitzeko laguntzak
<ul style="list-style-type: none">• Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa. (18. EHAA, 2007ko urtarrilaren 25ekoa)• Agindua, 2011ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua aldatzen duena. (226. EHAA, 2011ko azaroaren 29koa)• 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. (249. EHAA, 2002ko abenduaren 31koa)• Hutsen zuzenketa, ondoko dekretuarena: "317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa". (69. EHAA, 2003ko apirilaren 7koa)• Agindua, 2012ko uztailaren 18koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko REVIVE (Rehabilitación de Viviendas y Edificios) laguntza-programa arautzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikin-ondarean esku hartzeko proiektuak lantzeko eta horiek sorrarazitako lanak gauzatzeko. (146. EHAA, 2012ko uztailaren 27koa)• 241/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena. (241. EHAA, 2012ko abenduaren 14koa)• Agindua, 2013ko uztailaren 31koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez, Etxebizitza eta Eraikinen Birgaitze eraginkorraren alorreko Renove Planaren laguntza-programarako deialdia egiten da eta programa hori arautzen da; laguntza horien jomuga Euskal Autonomia Erkidegoko Ondare Eraikiko Esku-hartzeko Proiektuak egitea eta horien ondoriozko obrak egikaritzea da. (157. EHAA, 2013ko abuztuaren 20koa)• Agindua, 2013ko urriaren 23koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Honen bidez, birgaitze integratuko aretan edo bizitegi area degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindua aldatzen da.• 80/2014 Dekretua, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duena. (101. EHAA, 2014ko maiatzaren 30ekoa).• Agindua, 2014ko azaroaren 26koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinen bidez bigarren aldiz aldatzen baita etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua.
Birgaitze Integratuko Eremuetan eta Bizitegi Eremu Narriatuetan ondarea birgaitzeko diru-laguntzak
<ul style="list-style-type: none">• Agindua, 2007ko maiatzaren 2koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen duena. (88. EHAA, 2007ko maiatzaren 9koa).• Agindua, 2014ko azaroaren 26koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, birgaitze integratuko aretan edo bizitegi-area degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2007ko maiatzaren 2ko Aginduan ezarritako agiriak idazteko laguntzen deialdia egiten duena.

4. BIRGAITZEKO POLITIKEN JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO METODOLOGIA

4.1. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren birgaitzeko politikak ebaluatzearen helburua

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren birgaitzeko politiken ebaluazioa sail horrek burutzen dituen etxebizitza-politika publikoak osotasunean ebaluatzeko prozesuan txertatzen da.

2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea eta Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 aldirako Renove Plana dira politikak gidatzen dituzten eta planaren lau urteko indarraldian lortu beharreko helburuak ezartzen dituzten dokumentu estrategikoak. Osotasunean ebaluatzeko prozesuak Plan Zuzentzailearen fase guztiak hartzen ditu, haren diseinutik hasi eta inplementaziora eta emaitzen analisira iritsi arte.

Dokumentu hau 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen 4. ardatz estrategikoaren eta Renove Planak eta Plan Zuzentzaileak birgaitzearen alorrean 2014ko ekitaldirako ezarritako helburuen bitarteko ebaluazioa da:

- **2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen 4. ardatza: Birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta integratzailea sustatzea, Europako gidalerroei jarraiki.**
- **Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 aldirako Renove Plana.**

Ebaluazio honen helburua da Planaren aurrerabidea eta ezarritako helburuen aldean lortutako emaitzak edo lortu ez direnak ezagutzea, Plana gauzatu den bigarren urtean izan duen efikazia, eraginkortasuna eta estrategiaren estaldura ebaluatzeko.

Ebaluazio hau, une honetan, Plan Zuzentzailearen erdiko puntuan dago eta, horrenbestez, bi ekitaldietan batera zenbateraino egin den aurrera erakusten digu dokumentuak. Ebaluazioak aukera emango du ondorioak eta gomendioak ateratzeko eta, horien arabera, inplementatutako neurriak mantentzeko, aldatzeko edo kentzeko erabakiak hartu ahal izango dira.

4.2. Ebaluazioaren metodologia

2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen 4. ardatz estrategikoak bost jarduketa-ildo eta 16 ekintza edo neurri zehatz biltzen ditu guztira. **4.1. taulan** ikus daiteke 2014ko ekitaldian gauzatutako birgaitzeko jarduerak ebaluatzeko planaren eskema.

4.1. taula. Ebaluazio-metodologiaren eskema

EBALUAZIO PLANA
<ul style="list-style-type: none">• Diagnostikoaren eta Plan Zuzentzailearen analisia, eta Plan Zuzentzailearen <i>ex ante</i> ebaluazioa• Zer ebaluatuko den identifikatzea• Ebaluaziorako funtsezko adierazleak identifikatzea• Informatzaileak identifikatzea• Informazioa biltzea• Informazioa analizatzea• Efikazia- eta eraginkortasun-irizpideekin ebaluatzea• Gomendioak igortzea• Ebaluazioaren emaitzen txostena egitea

4.3. Ebaluazioaren galderak

Atal honetan definitzen da zein diren ebaluazioaren galderak, hots, zer galderari erantzun behar dien egiten den ebaluazioak. Galdera horiei txosten honen 7. kapituluari erantzuten zaie.

- a) **Lortu dira 2014. urterako ezarritako helburu orokorrak? Eta 2013-2014 aldirako ezarritakoak?**
- b) **Lortu dira 2014. urterako ezarritako helburu espezifikoak? Eta 2013-2014 aldirako ezarritakoak?**
- c) **Baliabideak eraginkortasunez erabili dira?**
- d) **Laguntzen banaketak lurralde-ekitateko irizpideei erantzuten die?**

5. BIRGAITZEKO POLITIKAK EBALUATZERA BIDERATUTAKO ADIERAZLEEN JARRAIPENA

5.1. Sarrera

2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen oinarriko lehenetsunetako bat birgaitzea eta hiri-berroneratzea sustatzea da, hori baita energia-aurrezpena, gizarte-kohesioa eta enplegu-sorrera lortzen laguntzeko bidea.

Plan Zuzentzailearen 4. ardatz estrategikoak guztira 16 neurri aintzat hartzen ditu, birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta Europako gidalerroekiko integratzailea erdiestera zuzenduak.

Kapitulu honetan analizatzen da sailak zenbateraino egin duen aurrera Plan Zuzentzaileak 2014. urterako birgaitzearen eta hiri-berroneratzearen alorrean ezarritako helburu orokorrak eta espezifikoak lortzeko eginkizunean.

5.2. Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 aldirako Renove Plana

5.2.1. Partikularrentzako eta jabeekideen erkidegoentzako laguntza-programa, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko


a) Emandako diru-laguntzak

Eusko Jaurlaritzan ibilbide luzea egin duen programa honen helburua da partikularren eta auzokideen erkidegoen birgaitze-obretan laguntzea, bizigarritasuna hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonentzako sarbideak egokitzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.

Programa honen esparruan 2014an emandako laguntzei esker guztira 11.632 etxebizitza birgaitu dira EAE osoan. Diru-laguntzen guztizko zenbatekoa 13,45 milioi eurokoa izan da. Horren arabera, etxebizitzako batez besteko diru-laguntza 1.156 eurokoa izan da.

Bilakaerari erreparatuta, 2009. urteaz geroztik joera beheranzkoa izan dela egiazta daiteke. Ebaluazio-txosten honen zazpigarren kapituluan egingo da atzerakada horren analisi sakona.

5.1. grafikoa. Birgaitutako etxebizitzaren kopuruaren eta birgaitzeko diru-laguntzen guztizko zenbatekoaren bilakaera (2006-2014).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritzak).

b) Diru-laguntzak birgaitze motaren arabera

Emandako laguntzak desberdinak dira, zenbatekoari dagokionez, birgaitu beharreko etxebizitzak birgaitze integratuko eremuetan egon ala ez. Lehenengo kasuan diru-laguntzak handiagoak dira.

Dena den, esan behar da diru-laguntzak lortu dituzten etxebizitza gehienak Birgaitze Integratuko Eremuetatik kanpo daudela: guztira 10.709 etxebizitza dira (guztizkoaren % 92) eta Birgaitze Integratuko Eremuren batean daudenak, berriz, 923 etxebizitza (diru-laguntza duten etxebizitzen % 8). Diru-laguntzen zenbatekoari dagokionez, birgaitze bakartuko eragiketek ere diruz lagundutako zenbatekoaren zatirik handiena hartzen dute (% 82 eta % 18).


5.1. taula. Etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak, birgaitze motaren arabera.

	Birgaitze bakartua		Birgaitze integratua		Birgaitzea guztira	
	Kopurua	Mila €	Kopurua	Mila €	Kopurua	Mila €
2002-2005 batez beste	10.909	7.707	1.521	2.871	12.430	10.578
2006-2009 batez beste	16.061	13.175	1.769	3.408	17.829	16.583
2010-2012 batez beste	15.495	14.527	1.624	3.269	17.120	17.797
2010	17.736	17.395	1.761	3.252	19.497	20.647
2011	14.563	11.975	1.770	3.783	16.333	15.758
2012	14.187	14.212	1.342	2.773	15.529	16.985
2013	12.208	12.168	1.201	2.364	13.409	14.532
2014	10.709	11.082	923	2.370	11.632	13.452

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza.


Hala, 2014an emandako laguntzei dagokienez, batez besteko diru-laguntza 2.568 eurokoa izan da birgaitze integratuaren kasuan eta batez bestekoa etxebizitzako 1.035 euroraino jaisten da birgaitze bakartuaren kasuan. Batez besteko horiek 2013an erregistratutakoak baino handiagoak dira, bereziki Birgaitze Integratuko Eremuetan emandako laguntzen kasuan, 2014ko batez besteko laguntza aurreko urteko batez bestekoa baino % 30 handiagoa da-eta.

5.2. grafikoa. Birgaitzeko diru-laguntzen batez besteko zenbatekoa, motaren arabera



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.3. grafikoa. Laguntzen banaketa esku hartzeko eremuaren arabera



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Laguntzak bakarka edo jabekideen erkidegoak eska ditzake. Lehen kasuan, gainera, partikularrek laguntzak eska ditzakete birgaitzeko eragiketak etxebizitzaren elementu pribatiboetan egiteko edo obra komunitarioak egiteko.

Alabaina, etxebizitzaren elementu pribatiboetan obra jakin batzuk egiteko laguntzak eskuratzeko aukera badago ere, eman diren diru-laguntza gehienak elementu komunitarioak birgaitzera bideratu dira; hain zuzen ere, guztizko zenbatekoaren % 98 xurgatu dute.


5.2. taula. Birgaitzera zuzendutako diru-laguntzen bilakaera, laguntza motaren arabera

Laguntza komunitarioa	Espediente kopurua	Etxebizitza kopurua	Diru-laguntza guztira (€)	Babes daitekeen aurrekontua (€)
2010	764	--	5.799.855	206.087.937
2011	764	--	5.830.890	227.947.174
2012	789	--	7.144.156	260.585.401
2013	681	--	6.713.355	200.838.358
2014	509	--	6.559.006	185.716.144
Laguntza partikularra. Birgaitze komunitarioa	Espediente kopurua	Etxebizitza kopurua	Diru-laguntza guztira	Babes daitekeen aurrekontua
2010	3.516	18.506	13.702.657	61.499.858
2011	3.332	15.665	9.091.447	50.438.863
2012	3.241	14.966	9.244.080	51.864.975
2013	3.098	12.926	7.304.496	41.093.418
2014	2.645	11.255	6.562.337	38.375.620
Bakarkako laguntza. Bakarkako birgaitzea	Espediente kopurua	Etxebizitza kopurua	Diru-laguntza guztira	Babes daitekeen aurrekontua
2010	991	991	1.144.320	9.814.217
2011	668	668	835.768	9.933.675
2012	564	563	597.282	8.373.254
2013	483	483	514.294	6.005.093
2014	377	377	330.789	2.924.830
BIRGAITZEKO LAGUNTZAK GUZTIRA	Espediente kopurua	Etxebizitza kopurua	Diru-laguntza guztira	Babes daitekeen aurrekontua
2010	5.271	19.497	20.646.832	277.402.012
2011	4.764	16.333	15.758.105	288.319.712
2012	4.774	15.529	16.985.518	320.823.630
2013	4.262	13.409	14.532.145	247.936.869
2014	3.531	11.632	13.452.132	226.823.523

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Nabarmendu beharra dago, bestalde, jabekideen erkidegoentzako zuzeneko laguntzek, azken urteetan termino absolutuetan atzera egin badute ere, 2014an etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzen programaren esparruan emandako guztizko diru-laguntzaren % 49 hartzen dutela dagoeneko. Birgaitze komunitarioarako partikularrentzako laguntzek izan duten beherakadaren ondorio izan da pisu erlatiboaren igoera hori.

5.4. grafikoa. Diru-laguntzen bilakaera laguntza motaren arabera.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzia.

Zehazki, 2014an erkidegoentzako zuzeneko laguntzak 6,6 milioi eurokoak izan dira, elementu komunitarioak birgaitzeko partikularrentzako laguntzek antzeko zenbatekoa izan dute, eta bakarkako elementuak birgaitzeko diru-laguntzak 330.000 eurokoak izan dira.


Gogoan izan behar da, bestalde, laguntza horiei esker guztira 227 milioi euroko babes daitekeen aurrekontua bildu duten obrak egin ahal izan direla. Guztizko horretatik, % 98 obra komunitarioen aurrekontuari dagokio (224 milioi euro) eta gainerako % 2a (3 milioi euro) 2014an diruz lagundutako bakarkako obrak guztizko aurrekontua osatzeko izan da.

c) **Diru-laguntzen banaketa geografikoa**

Diruz lagundutako etxebizitzaren guztizko lurralde-banaketa erakusten duenez, Bizkaiak guztizkoaren % 55 biltzen du, Gipuzkoak % 25 eta Arabak gainerako % 20a. Birgaitze integratuko eremuak bakarrik kontuan hartuta, Gipuzkoako proportzio handiagoa nabarmentzen da, esparru horietan birgaitutako etxebizitzaren erdiak baino gehiago kontzentratzen baititu (gustizkoaren % 52); proportzio hori guztizkoaren % 32ra jaisten da Bizkaiari eta % 15era Arabari.

Halaber, emandako laguntzen zenbatekoa kontuan hartzen badugu, laguntzen multzoan ere Gipuzkoaren protagonismoa gora egin duela ikus daiteke, zeren ezin baita ahaztu birgaitze integratuko eremuetan kokatutako obrak laguntza-zenbateko handiagoak jasotzen dituztela. Zehazki, Gipuzkoak diruz lagundutako guztizko zenbatekoaren % 38 xurgatzen du, Bizkaiak guztizkoaren % 43 eta Arabak gainerako % 19a.


5.5. grafikoa. 2014an emandako diru-laguntzen banaketa lurralde historikoaren eta birgaitze motaren arabera.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bestalde, alde garrantzitsuak antzematen dira laguntzen banaketa geografikoan gauzatutako birgaitzeak barne hartzen duen elementu motaren arabera, hau da, laguntzak elementu komunitarioak birgaitzera edo etxebizitzaren barnealdean erreformak egitera zuzendu diren kontuan hartuta. Lehenengo kasuan lurralde-banaketa hau ikus daiteke: Bizkaiak diru-laguntzaren % 44 kontzentratzen du, Gipuzkoak % 38 eta Arabak gainerako % 18a. Bakarkako birgaitzea kontuan hartuta, ordea, Arabak protagonismo handiagoa du, emandako guztizko diru-laguntzaren % 37 xurgatzen baitu; Bizkaiak, aldiz, % 38 kontzentratzen du eta Gipuzkoak % 25.

5.6. grafikoa. 2014an emandako diru-laguntzen banaketa, lurralde historikoaren eta laguntza motaren arabera.




Diru-laguntzen zenbatekoaren araberako banaketak dira.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.3. taula. Diru-laguntzak eta babes daitekeen aurrekontua birgaitze komunitarioko jardueren eta bakarkako birgaitze-jardueren arabera (2014).

Birgaitze komunitarioa			
Lurralde historikoa	Etxebizitza kopurua	Diru-laguntza guztira	Babes daitekeen aurrekontua
Araba	2.205	2.408.458	57.383.104
Bizkaia	6.250	5.704.390	100.373.153
Gipuzkoa	2.800	5.008.495	66.142.447
GUZTIRA	11.255	13.121.343	223.898.703
Bakarkako birgaitzea			
Araba	141	121.950	960.073
Bizkaia	138	125.364	1.285.812
Gipuzkoa	98	83.475	678.945
GUZTIRA	377	330.789	2.924.830
BIRGAITZEA GUZTIRA	11.632	13.452.132	227.016.593

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Azkenik, diruz lagundutako jarduketara multzoaren babes daitekeen aurrekontuari (aurreikusitako guztizko inbertsioa) erreparatuta, guztizko inbertsioa honela banatzen da geografikoki: % 45 Bizkaiari dagokio, % 29 Gipuzkoari eta % 26 Arabari.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

d) **Diru-laguntzak obra motaren arabera**


Bestalde, partikularrentzako eta jabeekideen erkidegoentzako laguntza-programak **sei jarduketa mota** babesten ditu; horietariko bakoitzari diru-laguntzaren zenbateko bat dagokio:

- Eraikinaren egitura eta eraikuntza bera egokitzeko obrak: 1. mota.
- Bizigarritasun-baldintzak egokitzeko obrak: 2. mota.
- Etxebizitzak eta sarbideak ezgaitasunak dituzten pertsonentzako indarreko araudira egokitzeko eragiketak: 3. mota.
- Eraikuntzaren eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko jarduerak: 4. mota.
- Inguratzaile termikoan esku hartzea energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia aurrezteko.
- Eraikuntza eta etxeen aldian behingo ikuskapenaren (EIT) ondorio diren txosten teknikoak egitea.

Alabaina, bi obra mota izan dira emandako diru-laguntzaren zatirik handiena kontzentratu dutenak: eraikinaren egitura eta eraikuntza bera egokitzeko obrak (7,1 milioi) eta iragarritasuna hobetzeko etxebizitzak egokitzeko obrak (3,7 milioi euro); oro har, 2014an emandako guztizko zenbatekoaren % 80 hartzen dute.

Bestalde, esan beharra dago eraikinen energia-eraginkortasuna haien inguratzailean egindako jarduketetan bitartez hobetzera zuzendutako programak hazten jarraitzen duela. Izan ere, azken urteetan gehien hedatu den jarduera izan da. Horretara zuzendutako diru-laguntza 1,8 milioi eurokoa izan da 2014an (1,3 M€ 2013an).

5.8. grafikoa. Laguntzen banaketa obra motaren arabera



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.4. taula. 2014an onartutako diru-laguntzak, obra motaren eta laguntza motaren arabera.

Obra mota	Birgaitze mota		
	Birgaitze komunitarioa	Bakarkako birgaitzea	Birgaitzeak guztira
1. mota: egitura eta eraikuntza egokitzea	6.593.317	154.234	7.107.551
2. mota: bizigarritasun-baldintzak egokitzea	6.291	--	6.291
3. mota: etxebizitzak egokitzea irisgarritasuna hobetzeko	3.598.464	113.410	3.711.873
4. mota: akabera	75.962	54.061	130.023
Ingurutzaila	1.790.596	--	1.790.596
EITen ordainsariak	695.695	9.085	704.780
Diru-laguntzak GUZTIRA	13.121.343	330.789	13.452.132

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza.

5.5. taula. Emandako laguntzen banaketa birgaitze bakartuaren edo birgaitze integratuaren arabera (2014).

BIRGAITZE MOTA	Diru-laguntza guztira	%
Birgaitze bakartua		
Auzokideen erkidegoentzako laguntzak	5.478.308	49,4
Partikularrentzako laguntzak. Birgaitze komunitarioa.	5.378.430	48,5
Partikularrentzako laguntzak. Bakarkako birgaitzea	216.367	2,0
BIRGAITZE BAKARTUA GUZTIRA	11.082.105	100,0
Birgaitze integratua		
Auzokideen erkidegoentzako laguntzak	1.071.698	45,2
Partikularrentzako laguntzak. Birgaitze komunitarioa.	1.183.907	50,0
Partikularrentzako laguntzak. Bakarkako birgaitzea	114.422	4,8
BIRGAITZE INTEGRATUA GUZTIRA	2.370.028	100,0
BIRGAITZEA GUZTIRA	13.452.133	

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

e) Emandako maileguak

Horrez gain, birgaitze-jarduerak mailegu kualifikatuak jaso ditzakete, subsidiaziorik gabe, gehienez ere aurrekontu osoaren adinako zenbatekoaz (diru-laguntza kenduta). Berriz ere egiazta daitekeenez, modalitate honetako laguntzak ez dira zuzeneko diru-laguntzak bezain garrantzitsuak, eta, gainera, azken urteetan beheranzko joera erakusten dute. 5.9. grafikoa ikus daiteke arian-arian gertatzen ari den atzerakada hori.


Zehazki, 2014an guztira 198 mailegu onartu ziren, 1,48 milioi euro baino gehixegoko baterako zenbatekoaz. Birgaitze bakartuko eragiketek (175) 1,23 milioi euro metatu zituzten eta birgaitze integratuko eremuen barruko jarduketek (23 jarduketa) 0,26 milioi euro.

5.6. taula. Etxebizitzak birgaitzeko maileguak.

	2006-09 batez beste		2010-12 batez beste		2012		2013		2014	
	Kopurua	m €	Kopurua	m €	Kopurua	m €	Kopurua	m €	Kopurua	m €
Birgaitze bakartua	845	6.035	450	3.220	246	1.694	214	1.642	175	1.225
Birgaitze integratua	118	1.174	67	694	45	512	30	222	23	259
Birgaitzea guztira	963	7.209	517	3.914	291	2.206	244	1.864	198	1.484

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzza.

5.9. grafikoa. Onartutako maileguen guztizko zenbatekoaren bilakaera (2006-2014).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzza.

5.2.2. Udalentzako eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasun arloko laguntzen programa

Programa honen bitartez, sailaren helburua da pertsona guztiek hiri-ingurunean eta espazio publikoetan berdin eta ahalik eta modu askeenean moldatzeko aukera izan dezaten lortzea; hori horrela, instalazioak Irisgarritasunaren Europako Kontzeptuan zehaztutako diseinu unibertsalaren arabera egokituko dira, pertsonen beharretara egokitzeko. Bestalde, ez da ahaztu behar 20/1997 Legeak hiri-ingurunearen, gune publikoen eta eraikinen irisgarritasuna bermatzea eskatzen duela.

Helburu hori betetzeko, sailak laguntzak ematen dizkie udalei eta tokiko erakunde txikiei, honako jarduketa hauei babesa emateko:

- Hiri-inguruneak, espazio publikoak, eraikinak, garraioak eta informazio-sistemak modu progresiboan egokitzea xede duten irisgarritasun-planak egitea eta planak eguneratzea.
- Udalen eta tokiko erakunde txikien irisgarritasun-planetan jasotako hobekuntza-obra egitea.
- Igozailuak eta plataforma jasotzaileak erostea eta instalatzea, hiri-ingurunean, eraikinetan eta espazio publikoetan irisgarritasuna bermatzeko.
- Xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuen hobekuntza-obra egitea.

2013ko deialdiak 1,8 milioi euroko guztizko aurrekontua aintzat hartzen zuen, baina azkenean 1.183.464,39 euro bideratu ziren guztira, hau da, hasiera batean aurreikusitako aurrekontuaren % 66. Aurrekontu hori 2014ko ekitaldian gauzatu zen.

2014ko deialdia, bestalde, urte-amaieran esleitu zen eta irisgarritasun-programan aintzat hartutako guztizko diru-laguntza 2,5 milioi eurokoa izan zen. 63 erakunde izango dira laguntza horien onuradun eta 24 plan eta 57 obra egiteko izango dira.

2014. eta 2016. urteen artean gauzatu beharreko urte anitzeko programa bat da. Programara 2014an zuzendutako aurrekontua 125.000 eurokoa izan da.

5.7. taula. Udalei eta tokiko erakunde txikiei irisgarritasuna hobetzeko emandako diru-laguntzak (2002-2014).

	2002-2005 batez beste		2006-2009 batez beste		2010-12 batez beste		2013		2014	
	Kopurua	m €	Kopurua	m €	Kopurua	m €	Kopurua	m €	Kopurua	m €
Planak	19	268	23	267	22	150	37	407	24	249
Obrak	153	2.467	132	3.034	147	2.521	152	1.393	57	2.251
Guztira	172	2.735	155	3.301	169	2.670	189	1.800	81	2.500

* 2011ko deialdia, 2012an ebatzia.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.8. taula. Irisgarritasun-programaren 2014ko deialdiko aurrekontuaren urteko banaketa

Urtea	Zenbatekoa (€)
2014	125.000
2015	475.000
2016	1.900.000
GUZTIRA	2.500.000

* 2011ko deialdia, 2012an ebatzia.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.


Lurralde-banaketaren arabera, proposatutako diru-laguntzari dagokionez, Bizkaiak onartutako diru-laguntzaren erdia baino gutxiago xurgatzen du (guztizkoaren % 45), Gipuzkoak % 39 eta Arabak gainerako % 16a.

5.9. taula. Udalei eta tokiko erakunde txikiei irisgarritasuna hobetzeko emandako diru-laguntzak. 2014an onartutako jarduketak.

	Onartutako erakunde kopurua	Planak		Obrak		Guztizko diru-laguntzak (€)
		Kopurua	Diru-laguntza (€)	Kopurua	Diru-laguntza (€)	
Araba	17	8	49.650	12	353.355	403.005
Bizkaia	26	9	112.759	25	1.006.333	1.119.092
Gipuzkoa	20	7	86.512	20	891.390	977.903
EAE	63	24	248.921	57	2.251.078	2.500.000

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.10. grafikoa. Erakunde onuradunen eta emandako diru-laguntzaren lurralde-banaketa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.2.3. Birgaitze Integratuko Eremuetan (BIE) edo Bizitegi Eremu Narriatuetan (EN) ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzen programa

2013ko urriaren 23 Aginduaren bitartez Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak birgaitze integratuko eremuetan (BIE) edo bizitegi-eremu narriatuetan (EN) ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak emateko 2013ko deialdia egin eta arautu zuen, Renove Planaren laguntza-programaren barruan. Programa horrek birgaitzeko planak eta azterketak egiteko laguntzak ematen dizkie udalei eta birgaitzeko hirigintza-sozietateei.

Deialdia 2014. urtean ebatzi zen eta 319.400 euro eman ziren guztira. Guztira 20 proiektu aurkeztu ziren eta azkenik 9 udali zegozkien 17 proiektuk lortu zuten onarpena.

Diruz lagundutako proiektuen aurrekontuen batura 342.599 eurokoa izan da; hortaz, diruz lagundutako ehunekoak % 93koa izan da.

5.10. taula. Birgaitze integratuko eremuetarako eta bizitegi-eremu narriatuetarako RENOVE programaren esparruan 2014an emandako diru-laguntzak

	Aurkeztutako proiektuak	Diruz lagundutako proiektuak	Emandako diru-laguntza guztira (€)
Araba	5	5	102.143,4
Bizkaia	11	8	134.705,6
Gipuzkoa	4	4	82.551,0
EAE	20	17	319.399,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2014ko deialdia 2014ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez arautzen da eta 2015ean ebatziko da. Laguntza horietarako 700.000 euro bideratu dira guztira.

5.11. taula. Birgaitze integratuko eremuetan eta bizitegi-eremu narriatuetan ondare urbanizatua birgaitzeko emandako diru-laguntzen xehetasuna

	Eskatzailea	Eremua
Araba	Haraneko Udala	Kontrasta
	Gasteizko Udala - 21 Zabalgunea	Erdi Aroko Hirigunea
Bizkaia	Lekeitioko Udala	Hirigune historikoa
	Ondarroako Udala	Hirigune historikoa
	Trapagarango Udala	La Arboleda
	Zallako Udala	Erdigunea eta Aranguren
Gipuzkoa	Bergarako Udala	Osintxu
	Elgoibarko Udala / Debegesa	Olasaogain
	Hondarribiko Udala	Hirigune historikoa
EAE		

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.2.4. Etxebizitza eta eraikinetako birgaitze eraginkorreko laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko

Etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorraren alorrean EAEko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko laguntza-programa Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko uztailaren 31ko Aginduaren bitartez araututa dago.

Laguntzak jabeekideen erkidegoei zuzentzen zaizkie, baita udalei, tokiko erakunde txikiei, etxebizitza-sozietate publikoei eta etxebizitza-sustatzaile publikoei ere, baldin eta jarduketen esparruaren barnean hartuta dauden eta errentamendu-helburua duten eraikinen jabeak badira, erabat edo partzialki.

Laguntzak esleitzen dituen ebazpena **2014ko ekainaren 6an** eman zen. Laguntzen guztizko zenbatekoa 6.060.000 eurokoa da eta urteko banaketa 5.12. taulan adierazten dena.


5.12. taula. Etxebizitzak eta eraikinak eraginkortasunez birgaitzeko programaren deialdiaren ebazpena

	Aurrekontua (€)			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE guztira
2014	80.722	343.754	153.632	578.108
2015	405.511	1.850.641	485.794	2.740.946
2016	405.511	1.850.641	485.794	2.740.946
Guztira	889.745	4.045.035	1.125.220	6.060.000

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Eman diren diru-laguntza horiek guztira 690 etxebizitza hartzen dituzten 16 eraikin osoan birgaitzera bideratu dira.

5.11. grafikoa. Diruz lagundutako proiektuen eta diru-laguntzak eraginpean hartu dituen etxebizitzaren lurralde-banaketa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2014ko abenduan 2015eko ekitaldiko diru-laguntzak emateko deialdi aurreratua argitaratu zen, 5,5 milioi euroko aurrekontu-saila zuena.

5.13. taula. Etxebizitzak eta eraikinak eraginkortasunez birgaitzeko Renove programaren 2014ko abenduko deialdiaren aurrekontua

	Zenbatekoa (€)
2015	100.000
2016	1.800.000
2017	1.800.000
2018	1.800.000
Guztira	5.500.000

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

5.2.5. Hiri-berroneratzerako diru-laguntzen programa

2014ko ekitaldian zuzeneko bi laguntza eman dira hiri-berroneratzeko bi proiektu diruz laguntzeko. Lehenengoa Abantoko Udalari emandako zuzeneko diru-laguntza bat izan da, Santa Juliana auzoko hiri-berroneratzeko obrak (1. fasea) hutsik dauden etxebizitzak erosi eta gero eraitsiz amaitzeko. Eta beste bat Mañuetan.

Halaber, diru-laguntza izendun bat eman zaio Sestao Berri sozietateari Sestaoko Los Baños kaleko 51 eraikina birgaitzeko jarduketarako. Diru-laguntzen zenbatekoa 2014. eta 2015. urteetan banatzen da, 5.2. taulan ikus daitekeen moduan.

5.14. taula. Hiri-berroneratzerako laguntzen programaren esparruan emandako diru-laguntzak

Proiektuak	2014	2015
Abanto	105.000	245.000
Sestao	105.000	245.000
GUZTIRA	210.000	490.000

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

5.3. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen 4. ardatza: Birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta integratzailea sustatzea, Europako gidalerroei jarraiki

Orain arte Renove planean sartutako programak aztertu dira. Atal honetan programa horiek zenbateraino bete diren aztertzen da, 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzaileak 4. jarduketa-ardatzean ezarritako helburuak kontuan hartuta. Ardatz horrek aurreikusten du, bere bost ildo estrategikoen eta 16 neurrien bitartez, birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta integratzailea sustatzea, Europako gidalerroei jarraiki.

5.3.1. 4.1. jarduketa-ildoaren (Irisingarritasun unibertsala sustatzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak

Renove planean sartutako programetako bat, 5.2.2. atalean aztertu duguna, udalei eta tokiko erakunde txikiei hiri-inguruneen irisingarritasuna hobetzeko laguntzak ematera zuzentzen da. Ildo horretan bertan, 4.1.A ekintza irisingarritasunaren arloko jarduketak lehenestera zuzentzen da, eraikuntzaren eta hiriguneetako beharren diagnostikoa kontuan hartuta. Ekintza horren asmoa da programa mantentzea ez ezik, jarduketa horiek gehitzea eta lehenestea, irisingarritasuna bermatzeari begira.

Plan Zuzentzailea gauzatu den lehen bi urteetan programa horretarako erreserbatutako guztizko aurrekontua 4,3 milioi eurokoa izan da (1,8 M€ 2013an eta 2,5 M€ 2014an). Azkenean bideratu den zenbatekoa 1,18 M€-koa izan da 2013an. Bestalde, 2014ko aurrekontua urte anitzekoa da, 2014-

2016 aldirako, eta 2014ko ekitaldiari 125.000 € dagozkie. Guztira 189 erakunde izan dira laguntza horien onuradun, eta 270 plan eta obra egin ahal izan dituzte.

Bestalde, 4.1.B ekintzak bultzada eman nahi dio EAEko eraikinetan ibilgailuak ezartzeari, zeren gogoan izan behar baita 2014an oraindik ere eraikin askok ez dutela igogailurik. Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko partikularrentzako eta auzokideen erkidegoentzako laguntzen programak, 5.2.1. atalean aztertutakoak, igogailuak instalatzeko edo ordezteko diru-laguntzak aintzat hartzen ditu. Azken bi urteetan emandako laguntzak kontuan hartuta, guztira 1.556 etxebizitza biltzen dituzten 866 espedientek jaso dute eraikinetan igogailu berriak instalatzeko diru-laguntza.

Bestalde, Planak neurri espezifiko bat aintzat hartzen du mendekotasunak dituzten pertsonentzako etxebizitzak hobeto egokitzeko jarduketak bultzatzeko. Horri dagokionez, implementa litezkeen neurriak analizatzeko azterketa bat egin beharko da datozen urteetan.

Azkenik, irisgarritasunaren arloko jarduketak erraztuko dituen arau-esparru egokia sortzea aurreikusten du 4.1.D ekintzak. Horretarako, aldez aurreko azterketa bat egitea eta gero araudia onartzea planteatzen da.

Politika: 4. ARDATZA.BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATzea, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI

Helburu orokorra: Irisgarritasun unibertsala bermatzea eta auzo, eraikin eta etxebizitzaren egoera orokorra hobetzea. Lau urteetan (2013-2016) birgaitzearen arloko 50.000 jarduketa hobetzea lortzea

Jarduketa-ildoak: 4.1. Irisgarritasun unibertsala sustatzea

Helburu espezifikoak: Irisgarritasun unibertsala bermatzea eta auzo, eraikin eta etxebizitzaren egoera orokorra hobetzea.

<i>Nomenklatura eta neurria:</i>	<i>Neurriaren/neurrien izena:</i>	<i>Helburu orokorra</i>	<i>Egin izanaren adierazleak (ekintzak/neurriak betetzeari lotuak)</i>	<i>Erdietsitako mugarrak 2013-2014</i>
4.1.A.	<i>Irisgarritasunaren arloko jarduerak lehenestea, eraikuntzaren eta hiriguneetako beharren diagnostikoa kontuan hartuta</i>	<i>Irisgarritasunaren arloko jarduketak gehitzea</i>	<i>Irisgarritasunaren arloan egindako jarduketa kopurua, hartzaileen arabera Planetan eta obretan onartutako proiektu kopurua Irisgarritasuneko jarduketetara bideratutako aurrekontua</i>	189 270 1.308.464
4.1.B.	<i>Igogailuak ezartzeari bultzada irmoa ematea</i>	<i>EAEko eraikinetan igogailu kopurua handitzea</i>	<i>Igogailuak ezartzeko emandako laguntza kopurua</i>	866 2013: 497 2014: 369
4.1.C.	<i>Etxebizitzak mendekotasunak dituzten pertsonentzat egoki daitezen bultzatzea</i>	<i>Mendekotasunak dituzten pertsonentzako etxebizitzak hobeto egokitzeko jarduketa gehiago egitea</i>	<i>Inplementatu beharreko neurriak eta laguntzak analizatzeko azterketa egitea: bai/ez</i>	Ez
4.1.D.	<i>Irisgarritasunaren arloko jarduerak egiteko arau-esparru egokia sortzea</i>	<i>Irisgarritasunaren arloko jarduketak erraztuko dituen araudi egokia onartzea</i>	<i>Azterketa egitea Arau-esparrua onartzea</i>	Ez Ez

5.3.2. 4.2. jarduketa-ildoaren (Eraikinak kontserbatzen eta mantentzen laguntzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak

Bestalde, 4.2. jarduketa-ildoak eraikinak kontserbatzean eta mantentzean zentratzen da. Horretarako, Planak aurreikusten du Eraikinen Ikuskapen Teknikoak egitea, irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna ziurtatzea barne.

Azken bi ekitaldietan (2013-2014) gutxi gorabehera 1,48 milioi euro bideratu dira Eraikinen Ikuskapen Teknikoak egiteko laguntzen kontzeptupean. Guztira 211 ikuskapen egin dira.

80/2014 Dekretua, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen Dekretua aldatzen duena, onartu izanaren ondorioz, EuskoRegite plataforma abian jarri zen 2014ko ekainaren 2an.

EuskoRegite EAEko eraikinen ikuskapen teknikoaren erregistrorako Interneteko plataforma da. Plataforma horren xedea da erraztasunak ematea eraikinen jabeek eraikinen ikuskapen teknikoa egiteko betebeharrak betetzeko, eta udalek ikuskapena kudeatzeko eta kontrolatzeko. www.euskoregite.com.

Zure eraikinari buruzko informazioa

Zure eraikinari Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egin behar zaion edo abian jarritako ikuskaritzen egungo egoera zein den jakiteko kokapena sartu ezazu:

Lurralde Historikoa


Udaleria

Herria

Helbidea

Zenbakia

> Bilatu



Zer jakin behar duzun...



EIT estatistikak

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2014an guztira 701 telefono-kontsultari eta 481 mezu elektronikori erantzun zaie plataforma horren bitartez. Kontsulta horiek era guztietako eragileek egin dituzte: udalek, arkitektoek, aparejadoreek, partikularrek...

EuskoRegite plataformaren barruan dago udalentzako zati pribatua, RECITE izendatu dutena. Udalek eraikinen ikuskapen teknikoen datuak biltzeko, analizatzeko eta inskribatzeko erabiliko duten tresna da. Abian jarri zenetik, herritarrek eraikinen 161 informazio-ohar eskatu dituzte eta udalek eraikinen 211 ikuskapen tekniko erregistratu dituzte guztira. Plataformak 5.033 erabiltzaile ditu guztira.

4.2.B ekintza energia-eraginkortasunaren arloan jarduketa gehiago egitera bideratzen da, xede horretarako laguntzak emango dituen programa espezifiko bat abian jarrita eta zabalkunde-kanpaina bat eginda. Jarduketa-ildo hori Europa 2020 Estrategiaren barruan kokatzen da eta, ildo horretan, karbono gutxiko ekonomia bultzatzen du konpromiso hauek betetzeko asmoz: CO₂ isuriak % 20 murriztea, energia-kontsumoa % 20 murriztea eta energia berriztagarrien erabilera % 20 handitzea. Gainera, Renove planean jasota dago, "Etxebizitza eta eraikinetako birgaitze eraginkorreko laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko" izeneko programaren barruan hain zuzen ere.

Programa abian jarri zenetik, guztira 1.032 etxebizitza izan dira laguntza horien onuradun, 2020 Estrategiak aurreikusitako lorpenak erdiesteko bidean aurrera eginez.

Azkenik, 4.2.C ekintzak aurreikusten du hiriguneak berroneratzeko jarduketa berriak bultzatzea eta esparru horretan jarduketa kopurua areagotzea. Helburu hori erdiesteko asmoz, harremanak izan dira birgaitzeko hirigintza-sozietateekin eta udalekin lankidetzan jarduteko eta lehentasunezko 8 jarduketa identifikatu dira guztira:

- Basauri (Sarratu)
- Bilbo (Peñascal)
- Sestao (Txabarri)
- Santurtzi (San Juan)
- Donostia (Txomin Enea)
- Eibar (Mogel)
- Abanto (Santa Juliana)
- Bergara (Osintxu)

Politika: 4. ARDATZA. BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATZEA, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI

Helburu orokorra: Irisgarritasun unibertsala bermatzea eta auzo, eraikin eta etxebizitzaren egoera orokorra hobetzea. Lau urteetan (2013-2016) birgaitzearen arloko 50.000 jarduketa hobetzea lortzea

Jarduketa-ildoak: 4.2. Eraikinak kontserbatzen eta mantentzen laguntzea

Nomenklatura eta neurria:	Neurriaren/neurrien izena:	Neurriaren/neurrien deskribapen kualitatiboa	Egin izanaren adierazleak (ekintzak/neurriak betetzeari lotuak)	Erdietsitako mugarrak 2013-2014
4.2.A.	Eraikinen Ikuskapen Teknikoak bultzatzea, irisgarritasuna, segurtasuna eta energia-eraginkortasunaren ziurtagiria barne hartuta	Eraikinen Ikuskapen Tekniko gehiago egitea	Egindako Eraikinen Ikuskapen Teknikoen kopurua Eraikinen Ikuskapen Teknikoen gaineko informatika-plataformaren (EuskoRegite) erabilera-indizea	Eraikinen 211 ikuskapen tekniko erregistratuta 5.033
4.2.B.	"Karbono gutxiko ekonomian" aurrera egitea, energia-kontsumo handia duten etxebizitzetan esku hartuta eta etxebizitza-parkearen eraginkortasuna hobetuta	Energia-eraginkortasunaren arloan jarduketa gehiago egitea	Programa egitea Energia-eraginkortasunaren arloan egindako jarduketa kopurua, tipologiaaren arabera Zabalkunde-kanpaina egitea: bai/ez	Bai 2013ko Renove plana: 690 etxebizitza. 2012ko Revive plana: 342 etxebizitza. Ez
4.2.C.	Hiriguneak berroneratzeko jarduerak berriak sustatzea	Hiriguneak berroneratzeko egindako jarduketa kopurua handitzea	Birgaitzeko Hirigintza Sozietateekin eta udalekin lankidetzan jarduteko harremanen adierazlea Identifikatu eta lehenetsitako jarduketa kopurua.	Bai 8

5.3.3. 4.3. jarduketa-ildoaren (Birgaitzeetan osoko kudeaketarako eredu berria bultzatzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak

Jarduketa-ildo hau birgaitzeetan osoko kudeaketarako eredu berria bultzatzera bideratutako zazpi ekintzak osatzen dute. Lehenik, 4.3.A ekintza VISESAren jarduketak hiriguneak birgaitzeko eta berroneratzeko esparrura hedatzera zuzenduta dago. Esan beharra dago VISESAk hiriguneak birgaitzeko eta berroneratzeko 5 proiektu estrategiko egiteko asmoa duela, eta horien gauzatzemaila % 20koa dela 2014ko ekitaldiaren itxieran.

Halaber, birgaitzen laguntzeko programen izapideak sinplifikatzea aurreikusten da, laguntzak eskatzeko prozesua errazagoa izan dadin. Horretarako, izapide guztiak bateratzeari begira ezar litezkeen hobekuntzak aztertzea eta hiriguneak birgaitzearen eta berroneratzearen gaineko informazioa eta laguntzak eskuratzeko kudeaketa-sistema bakarra ezartzea aurreikusten da. Esan behar da gaur egun ekintza horretan lanean ari direla eta aurreikuspenen arabera 2016. urterako leihatila bakarra erabilgarri egongo dela.

Birgaitzeko zerga-abantailak handitzeko premia ere planteatzen du Planak, EAEko etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea bultzatzeko neurri gisa. Horretarako aldundiekin harremanetan jarri beharra dago, arlo horretan eskumena duten erakundeak dira-eta. Horri dagokionez, sailak behar diren harremanak izan ditu eta proposamen bat egin dio Zerga Koordinazioko Batzordeari, hutsik dauden eta alokairuko merkatuan jartzen diren etxebizitzetako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hobaria emateko.

Bestalde, egin diren inkesta guztiek nabarmentzen dute EAEko herritarrek ez dutela informaziorik egun dauden birgaitzeko laguntzei buruz. Horregatik, laguntza horiek ezagutzera ematea aurreikusten du Planak, eta dibulgazio-materiala argitaratuko da eta hitzaldiak egingo dira horretarako. Neurri horrekin eskatutako laguntza kopuruak gora egingo duela espero da. Aurrera egiteko bide horretan, eguneratu egin da sailaren eta Etxebideren webguneetatik eskura daitekeen birgaitzeari buruzko dibulgazio-materiala.

Aurreko ekintzaren ildotik, Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen rola bultzatzeko premia planteatzen du Planak, herritarrengandik hurbilago daudenez laguntzak hedatzeko eta jasotzeko lanetan lagun baitezakete. Birgaitzeko Hirigintza Sozietateak sei hilez behin biltzen dira, eta 2014. urteaz geroztik Etxebizitza Sailburuordetza bilera horietan parte hartzen hasi da.

Bestalde, jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko laguntza-ildo berri bat ezartzea aurreikusten da, haiek birgaitzea eta gero etxebizitzak alokatzea xede duena. Plan Zuzentzailea gauzatzeko aldiaren bigarren erdian diseinatuko da programa hori.

Azkenik, 4.3.G ekintzak aurreikusten du EAEn hiri-ameteria ezartzeko bideragarritasun-azterketa egitea. Azterketa hori egin da, baina oraindik ez da sakondu Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko moduan, ezta horretarako behar den araudia prestatzeko lanetan ere.

Politika: 4. ARDATZA.BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATzea, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI

Helburu orokorra: Irigarritasun unibertsala bermatzea eta auzo, eraikin eta etxebizitzaren egoera orokorra hobetzea. Lau urteetan (2013-2016) birgaitzearen arloko 50.000 jarduketa hobetzea lortzea

Jarduketa-ildoak: 4.3. Birgaitzeetan osoko kudeaketarako eredu berria bultzatzea

Nomenklatura eta neurria:	Neurriaren/neurrien izena:	Helburu orokorra	Egin izanaren adierazleak (ekintzak/neurriak betetzeari lotuak)	Erdietsitako mugarrak 2013-2014
4.3.A.	VISESaren gaitasunak bultzatzea, hiriguneak birgaitzeari, zaharberritzeari eta berroneratzeari dagokionez	VISESaren jarduketak hiriguneak birgaitzeko eta berroneratzeko esparrura hedatzea	VISESaren arlo honetako proiektu estrategikoen gauzatze-maila VISESak egiteko asmoa duen hiriguneak birgaitzeko eta berroneratzeko proiektu kopurua	% 20 5
4.3.B.	Izapideak sinplifikatzea Birgaitzeko Renove Planaren laguntza-programetan	Kudeaketa-sistema bakarra ezartzea, hiriguneak birgaitzearen eta berroneratzearen gaineko informazioa eta laguntzak eskuratzeko.	Izapideak sinplifikatzeko ezarri beharreko hobekuntzen analisisa egitea: bai/ez	Ez
4.3.C.	Hiriguneen birgaitzea eta berroneratzea bultzatzeko zerga-pizgarriak ezar daitezkeen bultzatzea	Birgaitzeko zerga-abantailak gehitzea	Aldundiekin harremanetan jartzea: bai/ez	Bai. Zerga Koordinazioko Batzordeari egindako proposamena, hutsik dauden etxebizitzei Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hoberia emateko.
4.3.D.	Birgaitzeko eta energia-eraginkortasuna lortzeko laguntzak hedatzea	Birgaitzeko laguntzak daudela ezagutzera ematea	Dibulgazio-materiala argitaratzea, hitzaldiak egitea... Eskatutako laguntza kopurua handitzea	Bai Ez.
4.3.E.	Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen rola bultzatzea	Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen rola bultzatzea, herritarrengandik hurbil daudenez Eusko Jaurlaritzari lagundu baitiezaioke laguntzak hedatzen eta jasotzen	Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen rola bultzatzera zuzendutako harremanak	1
4.3.F.	Aztertzea Planaren 3 ardatz nagusi hauetan laguntza-lerro bat txertatzeko aukera: jenderik gabeko etxeak mobilizatzea, birgaikuntza eta etxebizitzaren alokairua	Birgaitze eta alokatzera bideratzen diren jenderik gabeko etxebizitzaren kopurua handitzea	Programa diseinatuta: bai/ez	Ez
4.3.G.	Modu xehatuan aztertzea Euskadiko BPE parkean amateria urbana, komertziala eta enpresariala txertatzeko aukera	Hiri-ameteriaren bideragarritasun-azterketa egitea	Azterketa egitea Araudia onartzea	Bai Ez

5.3.4. 4.4. jarduketa-ildoaren (Enplegua sustatzeko modu berriak bultzatzea birgaitzarekin lotuta) helburuak eta horiek lortzeko neurriak

Jarduketa-ildo hau birgaitzarekin lotutako enplegua bultzatzera bideratuta dago. Horretarako, 2014ko ekitaldian azterketa bat egin da lan-esparru horretan enplegarritasuna handitzeko dauden formula berrien inguruan.

5.18. taula. 4.4. jarduketa-ildo ebaluatzerara bideratutako jarraipena egiteko fitxa teknikoa

Politika: 1. ARDATZA.BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATZEA, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI				
Helburu orokorra: Irigarritasun unibertsala bermatzea eta auzo, eraikin eta etxebizitzaren egoera orokorra hobetzea. Lau urteetan (2013-2016) birgaitzaren arloko 50.000 jarduketa hobetzea lortzea				
Jarduketa-ildoak: 4.4. Enplegua sustatzeko modu berriak bultzatzea birgaitzarekin lotuta				
Nomenklatura eta neurria:	Neurriaren/neurrien izena:	Helburu orokorra	Egin izanaren adierazleak (ekintzak/neurriak betetzeari lotuak)	Erdietsitako mugariak
4.4.A.	Aztertzea enplegua sustatzeko modu berriak, etxebizitzak birgaitzeko lanekin lotuta	Dauden enplegarritasun-formula berriei buruzko azterketa egitea	Azterketa egitea	Bai

5.3.5. 4.5. jarduketa-ildoaren (Etxebizitzaren kalitatea sustatzea) helburuak eta horiek lortzeko neurriak

Azkenik, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko politikarekin jarraitzea zuzendutako lan-ildo bat sartzen da ardatz estrategiko honetan. Horretarako, egun dagoena egokituko duen araudi berria idaztea eta onartzea planteatzen da. Ekintza hau 2014an burutu da.

5.19. taula. 4.5. jarduketa-ildo ebaluatzerara bideratutako jarraipena egiteko fitxa teknikoa

Politika: 1. ARDATZA.BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATZEA, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI				
Helburu orokorra: Irigarritasun unibertsala bermatzea eta auzo, eraikin eta etxebizitzaren egoera orokorra hobetzea. Lau urteetan (2013-2016) birgaitzaren arloko 50.000 jarduketa hobetzea lortzea				
Jarduketa-ildoak: 4.5. Etxebizitzaren kalitatea sustatzea				
Nomenklatura eta neurria:	Neurriaren/neurrien izena:	Helburu orokorra	Egin izanaren adierazleak (ekintzak/neurriak betetzeari lotuak)	Erdietsitako mugariak
4.5.A.	Eraikuntzen kalitatea kontrolatzeko politikarekin jarraitzea	Araudi berria idaztea eta onartzea	Araudia egokitzea eta onartzea	Bai

5.4. Birgaitzeko laguntzen hartzaileen adierazleak


5.4.1. Birgaitzeko bakarkako laguntzak hartzen dituzten familien ezaugarriak

Birgaitzeko emandako laguntzei esker 13.409 etxebizitza birgaitu dira 2013an eta 11.632 etxebizitza 2014an. Atal honetan laguntza horiek eskuratu dituzten familien ezaugarriak azalduko dira.

Diru-sarreraren maila kontuan hartuta, familia onuradunen erdiek baino gehiagok urteko 15.000 euro gordinetik beherako diru-sarrerak zituztela egiazta daiteke. Zehazki, azken urteetako hartzaileen % 54 ez ziren diru-sarreraren maila horretara iristen. Bestalde, 2014ko familia onuradunen % 34k urteko 15.000 eta 21.000 euro gordin arteko diru-sarrerak zituzten, eta % 12k diru-sarreraren maila hori gainditzen zuten¹.

Lurralde historikoen arabera analisiak erakusten duenez, diru-sarreraren maila txikixeagoa da Bizkaiko hartzaileen artean, urteko 9.000 euro gordinera iristen ez diren diru-sarrerak dituzten familien proportzioa onuradunen % 21ekoa baita, eta Araban eta Gipuzkoan, aldiz, proportzio hori guztizkoaren % 16an kokatzen baita.

5.12. grafikoa. Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, diru-sarreraren mailaren arabera.




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

¹ Kontuan hartu behar da aipatutako datuak urteko diru-sarrera gordinen datuak direla, eta indarrean dagoen araudiak (2006ko abenduaren 29ko Agindua) ezarritako urteko 21.000 euroko gehieneko muga diru-sarrera haztatuei dagokiela, hau da, kontuan hartzen direla diru-sarrerak dituzten pertsona guztiak eta familia-unitatea osatzen duen kide kopurua.


Familia-unitatearen kide kopuruari dagokionez, deigarria da kide bakarreko familien proportzio handia, izan ere onuradun guztien % 42 baitira 2014an. Proportzio hori azken lau urteetan mantentzen da, baina aurreko garaietan antzemandakoa baino handiagoa da. Proportzio hori are handiagoa da, gainera, bakarkako birgaitzeei aurre egiteko laguntzen kasuan (guztizkoaren % 55 kide bakarrekoak). Birgaitzeko laguntzen onuradunen kolektiboan emakumeek duten pisu handia da beste bereizgarri bat. Ikus 5.15. grafikoa.

5.13. grafikoa. Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, familiako kide kopuruaren arabera.




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzia.

5.14. grafikoa. Birgaitzeko laguntzen hartzaile diren kide bakarreko familien proportzioaren bilakaera birgaitze motaren arabera.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzia.


5.15. grafikoa. Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, sexuaren eta birgaitze motaren arabera



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Birgaitzeko laguntzak eskatzeko espedienteetan emakumeek duten presentziaren analisia sakonduta, eta arreta kide bakarreko familietan jarrita, egiazta daiteke emakumeei dagozkiela bakarkako birgaitzeen kide bakarreko espedienteen % 63 (% 20 gizonak dira) eta birgaitze komunitarioen kide bakarreko espedienteen % 70 (% 18 gizonak dira). Esan beharra dago bi kasuetan eskatzaileen zati batek ez duela informazio hori eskaintzen (% 17 bakarkako birgaitzean eta % 12 birgaitze komunitarioan).


5.16. grafikoa. Kide bakarreko familiak birgaitze motaren eta sexuaren arabera



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Eskatzaileen adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoen kolektiboak nagusi izaten jarraitzen du. Izan ere, azken urtean onuradunen multzoan duen pisuak behera egin duen arren (% 53 eta 2013an % 56), epe luzean igoera nabarmena izan duela ikus daiteke.


5.17. grafikoa. Birgaitzeko laguntzen hartzaileen banaketa, adinaren arabera



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Amaitzeko, birgaitzeko laguntzen onuradunen artean oraindik ere nazionalitate atzerritarra duten pertsona gutxi daudela aipatu behar da. Hain zuzen ere, 2014an hartzaileen % 0,5ek besterik ez zuten nazionalitate atzerritarra.

5.18. grafikoa. Birgaitzeko laguntzak jaso dituzten atzerritarrak



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

5.4.2. Jabekideen erkidegoentzako laguntzak

Familiei elementu komunak birgaitzeko emandako bakarkako laguntzak bateragarriak dira mota horietako obrak egiteko jabekideen erkidegoei ematen zaizkien zuzeneko laguntzekin.

2014an emandako guztizko diru-laguntzetatik % 49 jabekideen erkidegoentzako zuzeneko diru-laguntzak izan dira (6,6 milioi euro).

Laguntza horiek lurralde historikoen arabera izandako banaketari dagokionez, guztizko diru-laguntzen % 46 Gipuzkoako auzokideen erkidegoentzat izan dira, % 38 Bizkaiko jabekideen erkidegoek jaso dute eta gainerako % 16a Arabako erkidegoek.

6. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK LAGUNDU DITUEN BIRGAITZEKO JARDUKETEN ERAGIN EKONOMIKOA

6.1. Eragin ekonomikoa

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak abian jarri dituen birgaitzeko politiken helburua da irisgarritasun unibertsala bermatzea eta auzo, eraikin eta etxebizitzaren egoera orokorra hobetzea, eta, Europa 2020 Estrategiarekin bat etorriz, etxebizitza eta eraikinen energia-eraginkortasuna bultzatzea. Hobekuntza horiek oso mesedegarriak izango dira familien bizi-kalitate handiagoa lortzeko eta, gainera, onura garrantzitsuak ekarriko dituzte familia-ekonomiarentzat eta ingurumenarentzat.

Eragin horiei diru-laguntzen politiken ondorioz eragindako inpaktu ekonomiko handia gehitu behar zaie. Izan ere, ez da ahaztu behar sailak birgaitzen laguntzeko garatu dituen ildoek eraikuntza-jardueren eragile ekonomiko baten lana egiten dutela.

2014ko datuei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko eman duen guztizko diru-laguntzak (13,45 milioi euro) 227 milioi euroko guztizko inbertsioa sortu du.

Inbertsio edo eragin zuzen horrez gain, kontuan hartu behar da zehar-efektua, hau da, azken eskaria areagotzearen ondorioz bitarteko kontsumoek duten eragina. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako azterketak² erreferentziatzat hartuta, zeharkako inpaktu hori 220 milioi eurokoa izan da 2014an.

Hortaz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak diruz lagundutako birgaitzeko laguntzen guztizko eragina, hau da, zuzeneko eta zeharkako eraginaren batura, 446 milioi eurokoa izan da 2014an.

Ekonomiaren efektu biderkatzaileen bitartez, inbertsio horrek EAEko 2014ko BPGd 153 milioi euro handitzea ekarri du (84 milioi euro zuzeneko eraginari dagozkio eta 69 milioi euro zeharkako eraginari). BPGd-aren gehikuntza hori EAEko guztizko BPGd-aren % 0,23 da.

Etxebizitzak birgaitzera bideratutako zuzeneko diru-laguntzen euro bakoitzak 33 euro sortu ditu produkzio-jarduerari dagokionez eta 11 euro, berriz, EAEko BPGd-aren gehikuntzari dagokionez. Produkzioan lortzen den eraginak zuzeneko erlazioa du emandako diru-laguntza motarekin eta kasu bakoitzean diruz lagundutako ehunekoarekin. Horrela, kontuan hartu behar da elementu komunak birgaitzeko emandako laguntzek obra-bolumen handiagoa sortzen dutela.

² Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak babestutako hiriguneak birgaitzeko eta berroneratzeko jarduketaren eragin ekonomikoaren eredu. Eusko Jaurlaritzak. 2011.


6.1. taula. 2010-2014 aldian birgaitzeko emandako laguntzen eragin ekonomikoa.

	2010	2011	2012	2013	2014
Onartutako laguntzak	20.646.832	15.758.105	16.985.866	14.532.145	13.452.132
Produkzioaren gainerako eragina	546.092.884	567.590.052	631.577.699	488.091.842	446.527.848
• Zuzeneko efektua	277.402.012	288.319.713	320.823.630	247.936.868	226.823.523
• Zeharkako efektua	268.690.872	279.270.339	310.754.069	240.154.974	219.704.315
BPGd-aren gainerako eragina	187.154.794	194.523.850	216.453.627	167.278.309	153.033.542
• Zuzeneko efektua	102.772.552	106.819.131	118.861.458	91.857.752	84.035.505
• Zeharkako efektua	84.382.242	87.704.719	97.592.169	75.420.557	68.998.037

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Birgaitzeko jarduerak eragindako sektore garrantzitsuenei dagokienez, eraikuntzaren sektorea da eraginik handiena izan duen jarduera eta bertan metatu da BPGd-aren hazkunderaren % 62 (95 milioi euro). Azpimarratu beharreko beste sektore batzuk, askoz ere neurri txikiagoan bada ere, honako hauek dira: handizkako merkataritza (% 5), hainbat enpresa-jarduera eta beste jarduera ez-metaliko batzuk (% 3,6 bakoitzak) eta bankua (guztizko eraginaren % 3,2).

6.1. grafikoa. BPGd-aren banaketa, birgaitzeko laguntzek eragindako sektore garrantzitsuenei arabera (2014).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

BPGd-aren osagaiak dagokienez, soldata eta ordainsari gordinek bereganatzen dute eragin ekonomikoaren % 44 (BPGd-aren arabera). Ustiapenaren soberakin garbiak bereganatu du % 34, gizarte-kotizazioek % 12, kapital finkoaren kontsumoak % 7 eta produkzioaren eta inportazioen gaineko zergak gainerako % 4a.

Sortutako enpleguari dagokionez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak lagundutako jardueri esker, 2014an guztira 2.767 enpleguri eustea lortu da. Enplegu horiek EAEn lanean ari diren biztanleen % 0,3 hartzen dute eta urteko batez besteko ordainsari gordinetan 24.242 euroko zenbatekoa adierazten dute langile bakoitzeko.


6.2. taula. Eragin ekonomikoa BPGd-aren osagaien arabera (2014).

BPGd-aren osagaiak	BPGd (€)	Banaketa (%)
Soldatakoen ordainsariak	67.064.186	43,8
Gizarte-kotizazioak	18.671.109	12,2
Ustiapenaren soberakin garbia	51.374.123	33,6
Kapital finkoaren kontsumoa	10.327.509	6,7
Produktzioaren eta inportazioen gaineko zergak	5.596.616	3,7
GUZTIRA	153.033.542	100,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzza.

Bestalde, birgaitzeko jarduerak sortutako eskariari esker, Euskal Ogasunetan 33 milioi euro gehiago lortu dira 2014an, hau da, Zerga Itunduen ondorioz aldundiek bildutako diru kopuruaren % 0,27. Zerga horietatik BEZak 15 milioi euro metatu ditu, 13 milioi euro izan dira PFEZren kasuan eta 5 milioi euro Sozietateen gaineko Zergaren kasuan.

6.2. grafikoa. Zerga-bilketaren banaketa zerga motaren arabera (2014).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzza.

Lurralde-analisiari dagokionez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak lagundutako birgaitzeko jarduketek sortutako 153 milioi euro BPGd honela banatu da lurraldeen arabera: % 45 Bizkaiari dagokio (69 milioi euro), % 30 Gipuzkoari (45 milioi euro) eta gainerako % 25a Arabari (39 milioi euro).

6.3. taula. Birgaitzeko laguntzen eragin ekonomikoa (2014).

	Sailaren diru-laguntza	Produktzioaren gaineko eragina	BPGd-aren gaineko eragina	Enplegua
Araba	2.530.408	114.855.160	39.363.037	712
Bizkaia	5.829.754	200.127.201	68.587.378	1.240
Gipuzkoa	5.091.970	131.545.488	45.083.128	815
EAE	13.452.132	446.527.850	153.033.452	2.767

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzza.

7.1. 2013-2016 Plan Zuzentzailearen helburuen betetze-mailaren ebaluazioa

Birgaitzeko jarduerak bultzatzea da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren etxebizitza-politiken funtsezko oinarrietako bat, alokairua sustatzearekin batera. Plan Zuzentzaileak birgaitzeko 73.480 jarduketa aintzat hartzen ditu guztira planaren lau urteko indarraldian egiteko, hots, Plan Zuzentzailean aintzat hartzen diren jarduketa guztien % 36.

2014ko ekitaldian guztira 11.713 jarduketa erdietsi dira birgaitzearen arloan: partikularrentzako eta auzokideen erkidegoentzako laguntzen programari dagozkion 11.632 jarduketa eta irisgarritasun-programan sartutako 81 jarduketa. Jarduketa horiek aurreikusitako helburuaren % 67 ordezkatzan dute (2013-2014 aldia aintzat hartzen bada % 74).

Bestalde, birgaitze integratuko eragiketetan kokatutako jarduketek aise gainditu dute aurreikusitako helburua (2013an % 115 eta 2013-2014 aldian % 177); birgaitze bakartuko jarduketek, aldiz, 2013an aurreikusitako helburuaren % 69 eta Plana gauzatzeko lehen bi ekitaldien multzoan aurreikusitakoaren % 78 erdietsi dute.

Irisgarritasun-programari dagokionez, 2014. urtean helburuaren % 41 baino ez da erdietsi, baina emaitza hobea izan da 2013. eta 2014. urteak batera kontuan hartzen badira (helburuaren gaineko % 71).

7.1. taula. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen birgaitzeko helburu kuantitatiboaren betetze-maila.

Jarduketa kopurua	2013-2016KO HELBURUA	2014			2013-2014		
		HELBURUA	GAUZATU-TAKOA	BETETAKO %	HELBURUA	GAUZATU-TAKOA	BETETAKO %
Birgaitzeko laguntzak	73.480	17.000	11.713	68,9	32.580	25.311	77,7
Birgaitze integratua	3.400	800	923	115,4	1.200	2.124	177,0
Irisgarritasun-programa	1.080	200	81	40,5	380	270	71,1
Birgaitze bakartua	69.000	16.000	10.709	66,9	31.000	22.917	73,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

7.2. taula. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren birgaitzeko jardueraren adierazleen laburpena (2013).

ADIERAZLEA	2013	2014
BIRGAITZEKO PROGRAMAK		
PARTIKULARRENTZAKO ETA AUZOKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO DIRU LAGUNTZAK		
Birgaitzeko emandako diru-laguntzen kopurua (etxebizitza kopurua)	13.409	11.632
Birgaitze bakartua	12.208	10.709
Birgaitze integratua	1.201	923
Emandako diru-laguntzen guztizko zenbatekoa (milioi eurotan)	14,53	13,45
Birgaitze bakartua	12,17	11,08
Birgaitze integratua	2,36	2,37
Emandako diru-laguntzen batez besteko zenbatekoa (euro/etxebizitza)	1.083,7	1.156,5
Birgaitze bakartua (euro/etxebizitza)	996,7	1.034,8
Birgaitze integratua (euro/etxebizitza)	1.968,4	2.567,7
Emandako diru-laguntzen zenbatekoa obra motaren eta hartzailearen arabera (milioi eurotan)	14,53	13,45
Birgaitze komunitarioa	14,02	13,12
Bakarkako birgaitzea	0,51	0,33
Obra guztien aurrekontu babesgarria (milioi eurotan)	247,94	226,82
ONARTUTAKO MAILEGUAK		
Onartutako maileguen kopurua	244	198
Onartutako maileguen zenbatekoa (milioi eurotan)	1,86	1,48
HIRI BERRONERATZEKO PROGRAMAK		
IRISGARRITASUN PROGRAMA		
Emandako diru-laguntzen kopurua	189	81
Diru-laguntzen zenbatekoa (milioi eurotan)	1,80	2,50
EREMU NARRIATUEN PROGRAMA*		
Diruz lagundutako proiektu kopurua	--	17
Emandako diru-laguntzen zenbatekoa (eurotan)	--	319.400

* 2013ko deialdia 2014an ebatzi zen, eta 2014ko deialdia 2015ean ebatziko da 700.000 euroko guztizko zenbatekoarekin.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Plan Zuzentzailearen 4. ardatzak aintzat hartutako neurriek dagokienez, 2014ko ekitaldian garatzeko aurreikusitako ekintzak oso neurri handian bete direla egiazta daiteke. 7.3. taulan egiazta daitekeen moduan, aintzat hartutako ekintza gehienak gauzatu dira.

Plan Zuzentzailea gauzatzeko aldiaren bigarren erdian aurre egin beharko zaien ekintzei dagokienez, nabarmendu beharra dago azterketa bat egingo dela mendekotasunak dituzten pertsonen etxebizitzak egokitzeko dauden laguntzei buruz, beste erakunde batzuekin batera lan egiteko neurri zuzentzaileak sartzeari begira. Halaber, irisgarritasuna hobetzeko jarduketak erraztuko dituen esparru arauemaile berria sortu beharko da.

Azkenik, Birgaitzeko Renove Planaren laguntzak eskatzeko izapideak sinplifikatzeko lan egin behar da. Horretarako, programak eta laguntzak onuradun motaren arabera sailkatzea eta kudeaketa-sistema pertsonal berri bat, arreta-sistema pertsonalizatu berri bat diseinatzea planteatzen da.

4. ARDATZA.				
BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATzea, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI				
	PLANGINTZA			
	2013	2014	2015	2016
4.1. ildo. Irisgarritasun unibertsala sustatzea				
4.1.A. Irisgarritasunaren arloko jarduerak lehenestea, eraikuntzaren eta hiriguneetako beharren diagnostikoa kontuan hartuta	√	√		
4.1.B. Iggogailuak ezartzeari bultzada irmoa ematea				
4.1.B.1. Ekintzak identifikatzea eta lehenestea	√			
4.1.B.2. Ekintza-programa diseinatzea				
4.1.B.3. Iggogailuak ezartzea		√		
4.1.C. Etxebizitzak mendekotasunak dituzten pertsonentzat egoki daitezten bultzatzea				
4.1.C.1. Esparru honetan dauden laguntzen egungo egoera aztertzea. Beste erakunde batzuek egiten duten lana aztertzea				
4.1.C.2. Neurri zuzentzaileak beste erakunde batzuekin batera diseinatzea				
4.1.D. Irisgarritasunaren arloan jarduerak egiteko arau-esparru egokia sortzea				
4.1.D.1. Irisgarritasuna hobetzeko jarduketak erraztuko dituen araudia sortzea				
4.1.D.2. Arau-esparrua izapidetzea eta onartzea				
4.2. ildo. Eraikinak kontserbatzen eta mantentzen laguntzea				
4.2.A. Eraikinen Ikuskapen Teknikoak bultzatzea, irisgarritasuna, segurtasuna eta energia-eraginkortasunaren ziurtagiria barne hartuta		√		
4.2.A.1. Eraikinen Ikuskapen Teknikoak egitea, irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna barne hartuta	√	√		
4.2.A.2. Eraikinen Ikuskapen Teknikoen gaineko informatika-plataforma inplementatzea eta erabiltzea		√		
4.2.A.3. Etxebizitzaren Renove Plana bultzatzen jarraitzea, 50 urtetik gorako antzintasuna duten fatxadak eta etxebizitzak birgaitzeko				
4.2.B. "Karbono gutxiko ekonomian" aurrera egitea, energia-kontsumo handia duten etxebizitzetan esku hartuta eta etxebizitza-parkearen eraginkortasuna hobetuta		√		
4.2.B.1. Karbono gutxiko ekonomiaranzko gidalerroak ezarriko dituen epe luzerako programa bat egitea		√		
4.2.B.2. Eraikuntza iraunkorra eta, bereziki, arkitektura bioklimatikoa, energia-eraginkortasuna eta uraren erabilera eraginkorra sustatzeko proiektu espezifiko bat planteatzea, profesionali zuzendua				
4.2.B.3. Zabalkunde- eta kontzientziazio-kanpaina, jabeekideen erkidegoei, higiezin jabetzako agenteei eta partikularrei zuzendua, esparru honetan lan egiten duten beste erakunde batzuekin batera (IHOBE, EEE).				
4.2.C. Hiriguneak berroneratzeko jarduera berriak sustatzea		√		
4.2.C.1. Hiriguneak berroneratzeko jarduketa berriak identifikatzea eta lehenestea. Jarduketak baloratzea		√		
4.2.C.2. Jarduketak gauzatzea				
4.3. ildo. Birgaitzeetan osoko kudeaketarako eredu berria bultzatzea				
4.3.A. VISESaren gaitasunak bultzatzea, hiriguneak birgaitzeari, zaharberritzeari eta berroneratzeari dagokionez		√		
4.3.A.1. VISESaren jarduketa-programa bat definitzea hiriguneak birgaitzeko, zaharberritzeko eta berroneratzeko		√		
4.3.A.2. Jarduketa-programaren esparruan jarduketak gauzatzea		√		

7.3. taula. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen 4. ardatza

4. ARDATZA. BIRGAITZE EREDU BERRI IRAUNKORRA, SOZIALA, EKONOMIKOA ETA INTEGRATZAILEA SUSTATzea, EUROPAKO GIDALERROEI JARRAIKI					
		PLANGINTZA			
		2013	2014	2015	2016
4.3.B.	Izapideak sinplifikatzea Birgaitzeko Renove Planaren laguntza-programetan				
4.3.B.1.	Dauden programak eta laguntza-ildoak tipologiaren eta onuradunen arabera sailkatzea				
4.3.B.2.	Kudeaketa-sistema diseinatzea: behar diren langileak, azpiegitura, arreta-sistema.				
4.3.C.	Hiriguneeen birgaitzea eta berroneratzea bultzatzeko zerga-pizgarriak ezar daitezkeen bultzatzea. Beste administrazio batzuekin lan egitea neurri horiek bultzatzeko.		✓		
4.3.D.	Birgaitzeko eta energia-eraginkortasuna lortzeko laguntzak hedatzea		✓		
4.3.E.	Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen rola bultzatzea		✓		
4.3.F.	Aztertzea Planaren 3 ardatz nagusi hauetan laguntza-lerro bat txertatzeko aukera: jenderik gabeko etxeak mobilizatzea, birgaitzeko eta gero etxebizitzak alokatzeko				
4.3.G.	Modu xehatuan aztertzea Euskadiko BPE parkean ameteria urbanoa, komertziala eta enpresariala txertatzeko aukera		✓		
4.3.G.1.	Figura hori babes publikoko etxebizitzaren euskal parkean ezartzeko eskakizunak eta baldintzak aztertzea		✓		
4.3.G.2.	Araudia idaztea eta onartzea				
4.3.G.3.	Neurria hedatzea eta argitaratzea				
4.4. ildo.	Enplegua sustatzeko modu berriak bultzatzea birgaitzearekin lotuta				
4.4.A.	Aztertzea enplegua sustatzeko modu berriak, etxebizitzak birgaitzeko lanekin lotuta		✓		
4.4.A.1.	Egun dauden enplegarritasun-formulak aztertzea		✓		
4.4.A.2.	Programa pilotua egiteko aukera analizatzea				
4.5. ildo.	Etxebizitzaren kalitatea sustatzea				
4.5.A.	Eraikuntzen kalitatea kontrolatzeko politikarekin jarraitzea		✓		
4.5.A.1.	Indarrean dagoen araudia egokitzea		✓		
4.5.A.2.	Araudia onartzea eta ezagutzera ematea				

7.2. 2013ko birgaitzeko politikaren ebaluazio globala

Atal honetan Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak garatu duen birgaitzeko politikaren ebaluazio globala egiten da. Horretarako, lortutako emaitzen efikazia eta eraginkortasuna, laguntzak ekitatez banatzea eta banaketaren estaldura eta onuradunen gogobetetasuna kontuan hartu dira.

a) Efikazia

Azken urteetan ikusi ahal izan denez, birgaitzearen arloan egindakoen bolumena atzera egiten ari da pixkanaka eta, horrekin batera, aurreikusitako helburuak gero eta neurri txikiagoan betetzen ari direla antzeman daiteke. 2014an diru-laguntzen kontzeptupean emandako 13,45 milioi euroei esker guztira 11.632 etxebizitza birgaitu ahal izan dira (helburuaren gaineko % 69). Programa horrek berak % 87ko betetze-maila erdietsi zuen 2013an.

Emandako diru-laguntzen bolumenean izan den atzerakada horren atzean laguntza-eskabideen kopuruan izan den beherakada dago, hau da, aurreikusitako aurrekontua ez da gauzatzera iristen ez dagoelako diru-laguntzen eskaririk. Izan ere, azken urteetan ikusi ahal izan denez, behera egin du Eusko Jaurlaritzari gisa horretako laguntzak eskatzen dizkioten pertsonen kopuruak. Emaitza hori efikaziari dagokionez analizatzeko, behar-beharrezkoa da beherakada horren zergatikoak zein diren jakiteko sakontzea. Pentsa daiteke, a priori, lau egoera mota egon daitezkeela:

- Diru-laguntzak izan arren, egin behar diren obren ordainketari aurre egin ezin dioten birgaitzeko premiak (Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestak nabarmentzen du beharrak gora egin duela eta eskariak, aldiz, atzera).
- Laguntzak daudenik eta zergak arintzeko aukera dagoenik ez jakitea (Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, etxebizitza birgaitzeko premia duten pertsonen % 18,5ek baino ez dute esaten Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak sakonki ezagutzen dituztela).
- Laguntzak eskatzea oztopatzen duten izapide gehiegi (arazoa hauteman da eta konponbidea aurkitzeko lanean ari dira).
- Birgaitzeko premiak murriztu izana (ez dirudi kasua denik).

Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza-parkearen antzintasuna kontuan izanik, nekez pentsa daiteke aintzat hartutako azken aukera hori erreala izan daitekeenik. Hortaz, premia horiek murriztu izana lehen hiru aukeren ondorio izan daitezkeela pentsa daiteke. Arazo horri konponbidea jartzeko, lanean jarraitu beharko da laguntzak ezagutzera ematen eta administrazio-izapideak sinplifikatzen. Ez da ahaztu behar laguntza horien onuradun gehienak 65 urtetik gorako pertsonak direla eta, horrenbestez, alde batetik, Internet ez dutela hain eskura (hor dago laguntzei buruzko informazio gehiena) eta, bestetik, zailtasun handiagoak dituztela laguntzak eskatzeko prozesua aurrera eramateko.

Planak informazio-kanpainak egitea aurreikusten du. Kanpainak Plan Zuzentzailea gauzatzeko aldiaren bigarren erdian egingo dira eta arreta berezia jarriko da adineko pertsonenganaino irits daitezen.

Bestalde, diru-laguntza horien inpaktu ekonomiko garrantzitsua nabarmendu beharra dago, 226 milioi euro inguruko obra-bolumena mobilizatzen baitute, sektorea eta enplegua mantentzen lagunduz.

Kontuan izan behar da Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT) nahitaez egin beharraren ondorioz, birgaitzearen sektoreko jarduerak gora egingo duela etorkizunean eta, horrekin batera, laguntza-eskabideak ere ugartu egingo direla ziur asko.

Nabarmentzekoak dira, halaber, udalei eta tokiko erakunde txikiei zuzendutako laguntza-programak, hiri-inguruneen irisgarritasuna hobetzen laguntzen dute-eta. Laguntza horiek udalen beren laguntzekin osatzen dira askotan.

b) Eraginkortasuna

Atal honetan, Plan Zuzentzailea eraginkortasunaren aldetik ebaluatzen da; hau da, lortutako emaitzak zein neurritan diren finantza-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide materialak egokiro erabiltzearen ondorio aztertzen da.

2014an emandako laguntzei dagokionez, etxebizitzako batez besteko zenbatekoa 1.035 eurokoa da birgaitze bakartuaren kasuan eta 2.568 eurokoa birgaitze integratuaren kasuan. Zenbateko horiek 2013an antzemandakoak baino handiagoak dira, batez ere birgaitze integratuari dagokionez (2013an 1.968 euro etxebizitzako).

Kontuan izan behar da, alabaina, birgaitzeko eragiketetara bideratutako laguntzak desberdinak direla egin beharreko obra motaren arabera. Hortaz, emandako etxebizitzako batez besteko laguntzen zenbatekoaren igoera egindako jarduketa desberdinen ondorio izan daiteke.

Baliabide publikoak urriak direnez, erabilgarri dauden baliabideak optimizatzen eta jarduerak lehenesten ahalegindu da Plan Zuzentzailea. Hala, kontuan hartuta irisgarritasun-programarekin laguntzen diren jarduketek gizartean duten garrantzia eta familia onuradunen diru-sarrera urriak, ezinbestekoa da laguntzak eraginkortasunez erabiltzea eta premia handieneko beharrei erantzutera bideratzea.

Etxebizitza-politika publikoen eraginkortasunari dagokionez, azpimarratu beharra dago diruz laguntzeko ematen den euro bakoitzak 33 euro sortzen dituela produkzio-jarduerari dagokionez eta 11 euro, berriz, BPGd-aren gehikuntzari dagokionez.

Hortaz, sailaren diru-laguntzen politikek onura garrantzitsua sortzen dute gizartearentzat ere, ekonomia dinamizatzeari eta enplegua sortzeari dagokionez. Horrenbestez, eraginkortasuna areagotzen laguntzen dutela esan daiteke, diruz lagundutako euro bakoitzak onura handiagoak sortzen ditu-eta.

Nabarmentzekoa da, azkenik, informazioa eta hiriguneak birgaitzeko eta berroneratzeko laguntzak eskuratzeko kudeaketa-sistema bakarra sortzeko egin den lana. Alderdi horretan lanean jarraitu beharra dago, herritarren mesederako, horrela laguntzak eskuratzeko erraztasun handiagoak izango baitituzte, eraginkortasuna areagotuko denaldi berean, baliabide publikoen erabilera eraginkorragoa izango baita.

c) Ekitatea

2014ko ekitaldian emandako laguntzen banaketa geografikoak lurralde-banaketa honi erantzuten dio: Bizkaiak diru-laguntzaren % 55 xurgatu du, Gipuzkoak % 25 eta Arabak gainerako % 20a. Plan Zuzentzaileak lurralde-banaketa hau erdiestea du helburu: % 50 Bizkaiari, % 34 Gipuzkoari eta % 16

Araban. Beraz, Bizkaian eta Araban kontzentrazio handiegia dagoela ikus daiteke, eta Gipuzkoaren pisua handitu beharra dagoela.

Birgaitze motari erreparatuta, ikus daiteke Gipuzkoak protagonismo handiagoa duela birgaitze integratuko laguntzen banaketan, emandako guztizko diru-laguntzaren % 50 xurgatzen du-eta.

Onuradunen ezaugarriei dagokienez, emakumeek eta adineko pertsonen osatutako familien nagusitasuna nabarmentzen da. Zehazki, 2014an birgaitzeko laguntzak jaso zituzten pertsonen % 53k 65 urte baino gehiago zituzten, familia hartzaileen % 42 kide bakarreakoak ziren eta, horietatik, % 63 eta % 70 artean emakumeak ziren (birgaitzea bakarkakoa edo komunitarioa zen kontuan hartuta).

2006ko abenduaren 29ko Aginduaren arabera, urteko 21.000 euroko zenbatekoan ezartzen da laguntza horiek eskuratzeko gehieneko muga. Izan ere, zailtasun handieneko familiak dira baliabideen xede nagusia. Gainera, laguntza horiek jaso dituztenak aztertzean ikus daitekeen moduan, onuradunen erdiak baino gehiago ez dira iristen urteko 15.000 euro gordineko diru-sarrak izatera (guztizkoaren % 54 diru-sarreraren maila horren azpitik dago).

d) Gogobetetasuna

Ebaluazioaren ikuspuntutik, oso interesgarria da birgaitzeko laguntzen onuradun izan diren pertsonen gogobetetasuna ezagutzea. Alabaina, gaur egun adierazle horiek ez daude erabilgarri, ez baita inkesta espezifikorik egiten gaur egun dauden programak eta Euskal Autonomia Erkidegoko familien beharrak zenbateraino bat datozen neurtzeko. Esan beharra dago inkesta hori une honetan egiten ari dela eta, hortaz, oso epe laburrean balio handiko informazioa erabili ahal izango dela.

Aipatu beharra dago, azkenik, Eusko Jaurlaritzak bi urtez behin egiten duen Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren bitartez informazioa lortzen dela eta horrela jakin daitekeela herritarrek nola baloratzen dituzten eta zenbateraino ezagutzen dituzten sailaren etxebizitza-politikak oro har. Etxebizitza birgaitzeko beharra dutela adierazten duten pertsonen erreparatuta, esan beharra dago Etxebidaren jarduketa 5 punturekin baloratzen dutela 0-10 eskalan, eta Eusko Jaurlaritzaren eta udalen etxebizitza-arloko jarduketa 4,8 eta 4,4 punturekin, hurrenez hurren.

8. GOMENDIOAK

Hiriguneak birgaitzeko eta berroneratzeko jarduera sustatzea da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren etxebizitza-politiken oinarritzko zutabeetako bat, irisgarritasun unibertsala, bizigarritasun-baldintzen hobekuntza eta nagusiki etxebizitzara zuzendutako eraikinen energia-eraginkortasun handiagoa bermatzeari begira.

Helburu horri erantzuteko, partikularrek, jabeekideen erkidegoek, udalek eta tokiko erakunde txikiek egiten dituzten birgaitzeko jarduketei babes ematera zuzendutako bost laguntza-programek osatzen dute Renove plana.

Bestalde, 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen ardatz estrategikoetako bat birgaitze-eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta integratzailea sustatzera zuzentzen da, Europako gidalerroei jarraiki.

Ukaezina da Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea sustatzen egin duen ekarpen handia. Ekarpene horrek onura garrantzitsuak ekarri ditu euskal gizartearentzat, oso mesedegarria izan baita Euskal Autonomia Erkidegoko familien bizi-kalitatea hobetzeko. Halaber, udalei emandako laguntzei esker, hiri-inguruneak hobetzen parte hartu du eta, horren ondorioz, irisgarriagoak eta seguruagoak egin ditu.

Egindako ebaluazioak aukera eman du strategiaren lorpenak identifikatzeko, baita Plan Zuzentzailea gauzatzeko aldiaren bigarren erdian hobetu behar diren puntuak zein diren jakiteko ere. Egindako ebaluaziorik esker, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak jarraian adierazten diren gomendioak eman ahal izan ditu, sailaren birgaitzeko politiken efikazia eta eraginkortasun handiagoa lortzeko helburuarekin:

- **EGUN DAUDEN LAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA HOBETZEA.** Ibilbide luzea egin duten arren, familia askok ez dakite laguntzak daudunik ere, are gutxiago zer-nolako irispidea duten. Kasu askotan, jendeak ez daki obra babestuaren deklarazioa bakarrik eskatzeko aukera dagoenik ere, zergak arintzeko aukera izateko. Hortaz, informazioa herritarrei hurbildu behar zaie, eta ez da ahaztu behar gaur egun mundu guztiak ez duela Internet eskuragarri, batez ere 65 urtetik gorako pertsonen artean, eta, horrenbestez, ez dela nahikoa webgunean erabilgarri dagoen dibulgazio-materiala eguneratzea.
- **LAGUNTZAK ESKATZEKO ADMINISTRAZIO IZAPIDEAK SINPLIFIKATZEKO MODUA ANALIZATZEA.** Informazio-lana egiten den aldi berean, beharrezkotzat jotzen da izapideak sinplifikatzea: behar den dokumentazioa gutxitzea eta eskaerak ebazteko epeak laburtzea.
- **ESKATZAILEEI PROZESU OSOAN LAGUNTZEA, ADINEKO PERTSONEI BATIK BAT.** Analisi honetan egiaztatu ahal izan den moduan, laguntza hauen onuradun gehienak 65 urtetik gorako pertsonak dira, sarri askotan informazio hutsaz haratago doan beste urrats bat behar dutenak, hots, prozesu osoan laguntzea. Beraz, programa espezifiko bat sor liteke adineko pertsonen informazioa eman, izapideak sinplifikatu eta laguntzeko, haien etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeari begira, horrela aukera izan dezaten beren etxebizitzan denbora luzeagoan irauteko, horrek gizarte-onura garrantzitsua ekarriko luke-eta.

- **ERAGILEEI JABEKIDEEN ERKIDEGOEN BETEBEHARREI BURUZKO INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA EMATEA.** Emandako informazioak helburu bikoitza bete beharko luke: alde batetik, jabekekideei gogoraraztea eraikinak osoan birgaitzeko eragiketak beharrezkoak direla eta abantailak ekartzen dituztela, eta, bestetik, eskakizun berriak zein diren jakinaraztea, hala nola Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egin beharra 50 urtetik gorako antzinatasuna duten eraikinen kasuan.
- **ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK UDALEKIN LANKIDETZAN JARDUNEZ EZARTZEKO PROZESUA AZTERTZEA ETA PLANIFIKATZEA.** Estatuko araudia onartu izanaren ondorioz, nahitaez luzatu behar izan dira Eraikinen Ikuskapen Teknikoak egiteko epeak, baina komenigarria izango litzateke ikuskapen horiek egitea bultzatzeko modua aztertzea eta plangintza egokia egitea, egungo eta etorkizuneko beharrak aurreikusi ahal izateko. Eraikinen Ikuskapen Teknikoek etxebizitzaren segurtasun handiagoa eta herritarren bizi-kalitate hobea ahalbidetuko dute, baina erronka handia ekarriko dute haiek ezartzeko prozesua kudeatzeari eta antolatzeari dagokionez. Halaber, bultzada emango diote sektoreari, hazi egingo baita jarduera ekonomikoa eta birgaitzearekin lotutako enplegua.